

ARRASATE PRESS

1993ko apirilak 23

189. zenb.

**Udal-aurrekontuak
datorren astean**



**ERRAJERA
EZ JITX**

**Krisia gero
eta sakonago**

Artazubiaga (Bedoña)

Erastiko tabernaren ezkerreko aldetik bidie zuzen hartute, 300 bat metro tara Urkemendigain eta Koruagain tontorren artien dauen lautadaxuen agiri da Artazia basarrixe, bere jatorrizko izena Artazubiaga bada be.

Etxe honen inguruen XV. gizaldirarte egon zan Artazubiagatarren dorretxie, Juan Bañez Artazubiagatarrek Oñetiko kondien mende ez egotiarren sue emoutsen arte.

Oin Dominga Galdos Zubia bertako alabie, eta bere gizona Antonio Etxagibel Urizar Garagartzako Iturraldekie die bertako bizilagunek.



Dominga eta Antoniok 3 seme-alaba izen ditue: Felix, Edurne eta Alberto.

Ondo jakin izen daue basarriko eta fabrikako lanak batera erueten: Antoniok Tijerasen eta Fagorren jubilau aurretik; Domingak gazterik

ikesi eben plazarako bidie, makinatxo bat txarriki, ogi eta berdura salduetekue da.

Aurreko bost generaziñuek Galdostarrak izan die, eta honein aurrekuek pe euren familixakuek.

Oin 26 urte dala, Fidel



Castro jarri arte, Kuban bizi izan zan Leopoldo Solanari erosi eutsien etxie.

Gaurko Artazia oin 63 urte dala Santa Zezilia egunien izendako sutien ostien jasotakue da.



HORTZ-MEKIKUNTZA INSTITUTUA HORTZ-OSASUNAZAINTZEKO ERABERRIBAT

Arrasaten klinika berria zabalduko da apirilaren 26an

- Odontologia
- Protesiak
- Ahoaren estetika
- Inplantologia
- Ortodontzia
- Periodontzia

Iturriotz, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 95 60

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Que bonita está la parra con sus raci mozkor dando

Espainiera ezezik Espainiako zenbait lurraldetako folklorea ere irakatsi zioten eskolan. Beraz, ezin esan eskolak bere eginkizuna betetzen ez zuenik. Inorren folklorea irakatsi zioten, bere herrikoa ezean. "Calle mayor de Logroño" abestarekin batera, Aragoiko jota politto dantzatzen ikasi zuen, Segoviako zenbait kantari doinua majo ateratzen ikasi zuen, baita galegoz abesti bat kantatzen ere; benetan eskola unibertsala zirudien, demokratikoa, kultur aniztasuna kontutan zuen horietakoa, alegia.

Haurra beti haur, eta honelako erabakien intentzioa ezin hausnartu. Bere izaeran zintzotasuna zen nagusi eta irakatsitako guztia edo ia guztia ikasi zuen.

Urteak pasa ahala, heldutasunarekin batera, atzera begiratu eta bere nortasuna aurkitu nahian, iragana interpretatzen saiatu zen. Halabaina, puzzlearen tankerakoa agertu zitzaion panorama. Nondik hasi? Horrela zegoela lagun batek honelakoak esan zizkion:

"Txikitari soka-saltoan ari ginela abesti hau kantatzen genuen 'Que bonita está la parra con sus raci mozkor dando' ('racimos colgando' bertsio originalean). Jakina, esandakoari esan nahia aurkitu guran, gure modura kantatzen genuen".

Geroztik beste zenbait pieza aurkitu zuen bere puzzlea osatzeko. Hauetariko bat ez oso modernoa ez horren hurbila, Argentinan kokatuta baitzegoen mende honen bigarren hamarkadan. Atahualpa Yupanki zen honen lekuko eta kontalari. Musikalari eta poeta argentinaren honek, honako datu hauek eman zizkion:

"Haurra nintzela, eskolan, neguko lehendabiziko egunetan korroan kanta arazten ziguten 'Sobre el puente de Aviñon todos bailan todos bailan'. Abesti frantses zahar hau, pampa erdian kantatzen nuen, nik, ez itsasoa ez eta hiria ezagutzen ez nuen honek, eta are gutxiago Frantzia zer zen ez nekien honek. Geroago ikasi eta jakin nuen

"Rio de la Plata"ren paisaia baino harantzago hedatzen zela geografía. Hau jakin eta neure buruari galdetzen nion ea zergatik ez zegoen egunero ikusten nuen gure patrioko zuhaitza izendatzen zuen korroan jolasteko abestirik".

Hauek urrutiko eta aspaldiko kontuak dira... pentsatzeko tentazioa izan zuen une batez, hale- rre aurrera jarraitu zuen puzzlea osatzeko pieza bila.

Aurkitutako hurrengo datua garaikideagoa zen, Espainian kokatua eta telebista pribatuarekin zerikusia zuena. Jose Javier Esparzak, hurrei zuzendutako programa bati erreferentzia eginez, honela zioen Donostian argitaratzen den egunkari batean: "Leticia Sabaterrek, bere programan hurrei zuzentzen zaienean, amerikar keinuak egiten dituen bitartean 'Okey, Mackey' esaten die, eta hurrek, arahotsa eginez, 'Okey, Mackey' erantzuten diote. Gure seme-alabak, Cervantes nor den ez dakitela haziko dira, baina amerikarrena egiten txiki-txikitatik ikasiko dute".

Pieza honek zer pentsa eman zion berriro ere, jakina, zergatik Cervantes eta ez Axular edo Orixe edo Lizardi edo Lauaxeta edo Mirande edo Mitxelena edo...edo...

MATILDE SAINZ OSINAGA



• ARRASATE PRESS •


Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karnele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanko Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopti, Danel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatgia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Arantza



ZENBAKI
Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

Memesa
79 42 22

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerrias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkun berreziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

•••••
Gero eta
langabetu
gehiago, gero
eta jai gehiago

San Andreseko auzoan antolatu ziren Galiziar Jaiak harrিতта jarraitu nituen, San Andres bertako jaien pareko edo handiagoak izan baitira, argizko suziri eta guzti!!!

Gauregun hau da egoera: Orain dela urte batzuk, oraindik lana zegoenean, Galizia, Gaztela, Extremadura... eta beste hainbat lurraldetatik Euskal Herrira etorritako inmigranteak berriro beraien jatorrizko herrietara bueltatzen ari direnean lan faltaren eraginez; hau da, gero eta inmigrante gutxiago dagoenean, hemen gero eta jai gehiago antolatzen da. Eta nik zera galdetzen diot nire buruari:

Jai hauek aldatuko ote dute langabezian dauden hainbat inmigranteren egoera? Barkatu errealista izateagatik, baina ezezkoan nago.

Jai hauetan inbertitutako dirutza (musika banda, argi suziri, olagarro...) berriro jasoko ote da? Jai hauen "superavit" bat egon al da, langabetu galiziarretan inbertitzeko? Edo beharbada, ez dago langabetu galiziarrik? Edo beharbada, olagarro jatea promozionatzen ari dira olagarroen lantegi bat zabalteko asmoz eta horrela lana sortzekotan?

Orain dela urte batzuk

oraindik dirua zegoenean eta orain baino inmigrante gehiago zegoenean, ez zen horrelako jairik antolatzen. Egoera hobetu al da? Baietz dirudi.

Horrelako jaien aurrean, zera galdetzen diot nire buruari: krisian al gaude benetan? Ala ni engainatzen ari dira? Baietz dirudi.

Ala gure burua engainatzen ari gara, krisi egoeran jai giroa antolatuz? Datorren urtean 400 galiziarren zenbakia ez dela igoko uste dut. Izan gaitezen serioak. Gauden egoera lantzean egonda, nahiko ironikoa iruditzen

baitzait horrelako ospakizunetan dirua gastatzea.

Adierazi beharra dago baita, jaia, azterketa-aste-buruan izan dela eta niri bezala, beste hainbat ikasleri ezinezkoa izan zaigula ganozez ikastea zarataren ondorioz, beraz ikasleenganako errespetu falta nabari izan dut jai hauen antolaketan. Zergatik ez ziren jaiak Aste Santuetan ospatu? Lojikoagoa litzateke.

Besterik gabe, jaietan inbertitutako diruak lanpostu asko sortu duen esperantzarekin agurtzen dut Manolo Moreiras jauna.

MIKEL ARRUPÉ ALDEKOZEA

ALDAKETA

ARRASATE PRESSEKO erredakzioan aldaketa izan dugu Aste Santuko oporren bueltan. Beñardo Kortabarria antzuolarrak hiru urtez gurekin izan denak txanda utzi dio beste lankide bati: **Luis Fernandez** eibartarrari. Deba Bailarakoa berau, baina beste puntakoa, oraindik ordenagailua nola "itxungi" behar den ere ez




daki. Ongietorri berriari, eta kontuz ibiltzeko abisua Beñardori, udazken partean ezkontzeko asmotan ei dabil eta.

MENDI taberna
Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

Soziedadeetara joateko ohiturarik?



Antonio Balenciaga
Jubilatua (68 urte)

Jubilatu aurretik San Isidro sozidadera joaten nintzen, baina orain Jubilauetara joaten naiz. Sozidadetan, normalean barriketa asko egin eta nahi duguna edaten dugu.



Lorenzo Rojas
Jubilatua (66 urte)

Bai, normalean Andaluziako elkartera joaten naiz. Bertan ia jende berbera biltzen gara egunero eta gure gazetaz hitz egiten dugu.



Juan Jose Uribarren
Ulgorreko langilea (62 urte)

Bai, askotan joaten naiz. Gainera, lehendakari ordea naiz eta goizetik lanean nabillenean, egunero joaten naiz.



Balbin Larrañaga
Jubilatua (59 urte)

Bai, joaten naiz baina asteburutan bakarrik. Normalean Aramaioko Gantzagako auzoko sozidadera joaten gara. Afariak, berba ugari eta horrelakoak egiten ditugu.



Anjel Peña
Industrialia (42 urte)

Bai, normalean hamabostean behin eta ostiraletan joaten naiz. Gutxigorabehera 7-8 lagun biltzen gara eta astean zehar egin duguna kontatu eta zerbait edaten dugu.



Jose Antonio Bedia
Roneoko langilea (44 urte)

Ez, ez dut ohitura gehiegi. Normalean lagunengozidadera joaten naiz afariren bat egin dugunean, baina ni behintzat ez naiz bazkide eta ez dut uste izango naizenik ere.



Juan Pablo Juez
Dietetika ikaslea (19 urte)

Ni ez naiz sekula joaten. Uste dut jende nagusiarentzat dela, batez ere. Gainera, ez dut uste inoiz bazkide egingo naizenik, piska bat desfasatuta daude nire ustez.



Iban Garcia
REMeko ikaslea (15 urte)

Ez, ez naiz ia inoiz joaten, ez zait gustatzen bertan egoten den giroa. Lagunen urtebetetzeak ospatzeko joaten naiz, baina, bestela ez.

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HIRE

Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 57 20

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualatorria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udalzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitate (Iberduero) 79 05 81
 Gas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 23
 Egunez: Amezia. Santa Marina.
 Gauzez: Amezia. Santa Marina.

Larunbata 24
 Egunez: Ruiz. Maala.
 Gauzez: Ruiz. Maala.

Igandea 25
 Egunez: Morales. San Andres.
 Gauzez: Morales. San Andres.

Astelehena 26
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.
 Gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

Asteartea 27
 Egunez: Español. Iturriotz.
 Gauzez: Español. Iturriotz.

Asteazkena 28
 Egunez: Corcuera. Musakola.
 Gauzez: Corcuera. Musakola.

Osteguna 29
 Egunez: Irizar. Erguin.
 Gauzez: Irizar. Erguin.

23 OSTIRALA

ZINEA

"El ojo público"(7,10)

ROCK KONZERTUA

"El inquilino comunista" eta "Meddening Flanes" taldean rock kontzertua. Arratsaldeko 8.30etan. Arrasateko Gaztetxean. Sarrera: 400 PTA.

BERRI-ZAHAR TALDEAREN AURKEZPENA

Beinke elkarte Euskaldun berrien Berri-zahar taldearen aurkezpena. Arratsaldeko 7etan. Aretxabaletako Udai Euskaltegian.

PINTURA ERAKUSKETA

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko ikasleen pintura erakusketaren lehen eguna. Amaiera: maiatzak 2a.



BI KONZERTU GAZTETXEAN

Asteburu honetan bi kontzertu egongo dira gaztetxean. Gaur ostirala, apirilak 23, arratsaldeko 8.30etan "El inquilino comunista" talde getxotarrak eta "Meddening Flanes" talde Cadiztarrak eskainiko duten kontzertua egongo da eta sarrera 400 PTAkoa izango da. Larunbatean, berri, Lousiniako "Short Fuse" taldearen blues kontzertua izango da, gaueko 10etan eta 300 PTAko sarrerarekin.

24 LARUNBATA

ZINEA

"Sneakers (Los fisgones)" (5,7,30,10)

ENPLEGU ETA INDUSTRIALIZAZIOAREN ALDEKO MARTXA

Bergararik Arrasatera martxa. Irteera 10.30etan Bergaran, 12.30etan bukatzeko Arrasaten.

BLUES KONZERTUA

Short Fuse taldearen blues kontzertua. Gaueko 10etan. Arrasateko Gaztetxean. Sarrera: 300 PTA.

62-63 KINTOEN EGUNA

62-63 kintoen eguna Eskoriatzan. 8etan poteoa Zarautarra tabernatik hasita. Afaria: Angiozarko Orzi jategietxean. Izena emateko: Zarautarra tabernara dei egin.

BERGARA-ARRASATE MARTXA

UCEM enpresak bizi duen egoera ekonomiko larria dela eta, bihar larunbata, apirilak 24ean, Bergararik Arrasatera helduko den martxa antolatu dute. Asteazkenean zehar hainbat mobilizapen burutu ondoren, bihar goizeko 10.30etan Bergarako plazatik irtengo da martxa hau. Arrasatera 12.30ak aldera iristea espero da. CC00, LAB, ELA, ESK eta KTK antolatzen dute martxa eta horretaz gain beste 53 taldek ere apoiatzen dute: 50 enpresa desberdinetako enpresa komiteak, Fagor Electrodomesticos-eko Kontseilu Sozialak, Fagor Ederlari-eko Kontseilu Sozialak eta Fagorrekoko Kontseilu Orokorrak.

25 IGANDEA

ZINEA

"Sneakers (Los fisgones)" (5,7,30,10)

MENDI IRTEERA

Bardeetara mendi irteera. Irteera: Goizeko 7etan Garibaitik. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta. Prezioa: 1.000 PTA bazkide nagusiek, 500 bazkide gazteek, 1.300 bazkide ez diren nagusiek eta 800 bazkide ez diren gazteek.



ESKOLARTEKO BERTSOLARI GAZTETXOEN XII. TXAPELKETA

Urtero bezala "Bertsolari Irakaskuntzan" plangintzaren barruan Eskolarteko Bertsolarien txapelketa eratu du Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak, Foru Aldundiko Kultura Sailaren babesarekin. Gipuzkoako edozein ikastetxetan dabilzan neska mutikoei har dezakete parte txapelketa honetan. Bi arlo bereiztuko dira: bapatekoak eta bertsopapera. Txapelketak hiru fase izango ditu: ikastetxe barruko aukeraketa, eskualdeko kanporaketak eta azken saioa edo finala. Eskualdeko kanporaketan bailara bakoitzean egingo da eta maiatzaren 21ean, ostirala, Leintz balarako kanporaketa burutuko da, Oñatiko Institutuan arratsaldeko 3etan. Finala maiatzaren 29an, larunbata, Donostiako Anoeta Pilotalekuan, goizeko 11etan.

26 ASTELEHENA**ZINEA**

"Sneakers (Los fisgones)"
(7,9.30)

IKASTAROA: 0-3 URTEBITARTEKO HAURRAREN GARAPENA

0-3 urte bitarteko haurren garapenari buruzko ikastaroaren hasiera. Arratsaldeko 6etatik 7etara. Monterronen. Dohainik. San Frantzisko Xabier eta Umezaintzak antolatuta.

ARGAZKI IKASTAROA ESKORIATZAN

Maiatzaren 4ean hasiko den argazki ikastarorako izenak emateko epea datorren astean bukatuko da. Zortzi orduko teoria eta beste zortziko laborategiko praktikak izango dira. Astearte, ostegun eta larunbatetan izango dira klase hauek eta ikastaro osoaren prezioa 1.000 PTA da. Plazak mugatuak direnez, izena lehenbait lehen ematea gomendatzen da, Eskoriatzako Kultur Etxean.

SAN JUANETAKO KARTEL LEHIAKETA

Urtero bezala, San Juan 1993 jaietarako kartel lehiaketa antolatuta da. Arrasaten bizi edo errolatutako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan. Kartelek 50x70ko neurria izan behar du. teknika librea izango da eta datorren maiatzaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira, Udaleko Kultura Departamentura. Irabazlearen izena maiatzaren 22an ezagutuko da eta 100.000 PTAko saria jasoko du.

27 ASTEARTEA**ZINEA**

"Sneakers (Los fisgones)"
(7,9.30)

HITZALDIA: IKUSPEGIAK ZABALTZEKO PROIEKTU BAT

"Ikuspegiak zabaltzeko proiektu bat" izenbuzpean hitzaldia. Emalea: Jose Luis Berraondo, A.P. Amortiguadores enpresako zuzendaria. Arratsaldeko 6.45etan. Eskola Politeknikoan.

28 ASTEAZKENA**HITZALDIA**

"Bularreko minbiziaren prebentzioa"ri buruzko hitzaldia. Hizlaria: Mitxelena Sendagile Anderea. Arratsaldeko 4etan. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

BERRI-ZAHAR TALDEAREN AURKEZPENA

Beinke elkarteak Berri-Zahar taldearen aurkezpena egingo du gaur ostirala, apirilak 23an. Euskalduntze bideari ekiten dioten euskaldunek aurrera errezago eta benetako euskarazko gizarteratzea eman dadin bideak jarri nahi da. Euskaldun berriak gonbidatzen dira, batez ere.

**IKASTAROA: 0-3 URTE BITARTEKO HAURRAREN GARAPENA**

Datorren astean, apirilak 26 eta 29a bitartean 0-3 urte bitarteko haurren garapenari buruzko ikastaroa burutuko da. San Frantzisko Xabier ikastola eta Umezaintzak antolatzen duten ikastaro honetara, umea izango duten bikoteak edo orain gutxi eduki dutenak daude gonbidatuta. Berarekin momentu guztiak gozatzea, bere nahiak eta beharrak ezagutzea eta zalantzak eta kezak argitzea dira helburuak. Arratsaldeko 6etatik 7etara izango dira hitzaldiak, Monterronen. Interesatuok 79 01 02, 79 61 04 edo 79 56 49 telefonotara dei egin.

29 OSTEGUNA**ZINEA**

"Sneakers(Los fisgones)"(7,9.30)

ARGAZKI IKASTAROA

Argazki ikastarorako izena emateko azken eguna. Eskoriatzako Kultur Etxean. Klaseen hasiera: maiatzak 4. Prezioa: 1.000 PTA.

HITZALDIA

"Dietak eta minbizia" lemapean hitzaldia. Hizlaria: Nerea Larrañaga. Arratsaldeko 3.30etan. AEDn. AEDko EKIN emakume taldeak antolatuta.

TUNANTES DEL NORTEAREN AURKEZPENA

Tunantes del Norte antzerki taldearen "Una de casas" izeneko azken lanaren aurkezpena. Ilunkeran. Gaztetxean.

HELDUENTZAKO TXONTXONGILO MOSTRA

Helduentzako txontxongiloen II. nazioarteko mostraren hasiera. Maiatzaren 2an bukatuko da. Bergarako kaleetan zehar 7.30etan eta 8etan Zabalotegin.

FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUAREN PROGRAMA BERRIA

Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak hurengo hiru hilabetetako programa eman du ezagutzera. Goizean yoga izango da bakarrik. 3.30etatik 6.30etara, eskularen tailerra, puntua eta gakorratza, garapen pertsonaleko ikastaroa eta sukaldaritza ikastaroak izango dira. 6.30etatik 9etara, eskularen tailerra, sukaldaritza, marrazkia, gitara, makrame eta tapizgintza eta psikologia ikastaroak. Izena emateko zentzura zuzendu edo 79 04 59ra dei egin.

“ARRASATE PRESS izeneko aldizkariak erakutsi du euskara batua, egungo estandarra, ez dela berez bizkaieraz mintzo direnentzat oztopo, gauzak behar bezala eginez gero, alegia, euskara txukun eta errazean”.

Xabier Mendigurenek “Euskara batua eta komunikabideak

ele

• Udal kirol instalazioetan kuotak gutxitzea, jubilatua, ume eta langabetuei batez ere.

- Aukearen gestioa hobetzea.
- Eskola publikoei laguntza gehitzea.
- Zerrajeraren ondoko erreabilitazio zentrua hobetzea.
- Langabetuentzako laguntza eta informazio zerbitzua.

• ARRASATE PRESSi orain arte bezala eustea, baina gaztelerazko gehigarri batekin.

• ATBri orain arte bezala eustea, baina egunero ordu erdiko informatibo bat gazteleraz eginez.”

Arrasateko zinegotzi sozialisten taldeak



“Gimnasia erritmikoa, koordinazioa eta flexibilitatea edo malgutasuna nagusi diren gimnasia-aren arlo bat da. Kirol honetan, mugimenduek musika baten erritmoa jarraitu behar dute, beraz mugikortasun handiko koreografia erakustaldi bat bilakatzen dela esan genezake. (...) Erritmoa, malgutasuna, arintasuna, oreka, koordinazioa... guzti horren batasuna da gimnasia erritmikoa. Alperrikakoa da ‘goma’ bat izatea grazia edo erritmorik ez baldin badago”.

Adelaida Silvarrek

KONTZEJUPETIK

Zertan egon daitezke ados Elkarri eta Gesto por la Paz?



Txema Auzmendi
Kazetari ordiziarra,
Elkarri-ko kide



Juan Mari Tolosa
Beasaindarra, Gesto edo
Garraixi Ixila taldekoa

Euskal gatazka honen aurrean elkarriketa bidea azpimarratzen dugu bi taldeek. Zentzu horretan, elkartu gabe inoiz ere ezin daiteke elkarriketarik egon. Elkarrekin egon gara, baina uste dut aurrera ere bidea badugula egitekoa. Ikuspuntu desberdinak dauzkagu, dena den, Euskal Herriari eta gatazkari buruz. Baina, noski, eseri gabe ere, ez dago jarrera horiek hurbiltzerik. Beraz, Elkarriren aldetik inolako oztoporik ez dago eseri eta hitz egiteko, eta beren aldetik ere orain arte ez da egon oztoporik. Bi taldeen artean egon dira kontaktuak, baina ez gara gelditu ezer konkretutan.

Badakigu zein diren Elkarriren ardatzak: elkarriketa, akordioa, eta gero errefrendo bat. Nola ez egon ados elkarriketarekin? Denok gaude ados horretan, elkarriketa beharrezkoa dela momentu guztietan esaten dugu. Akordioa da bigarren puntua, baina akordioa zertaz? Guk pentsatzen dugu gizarteari dagozkion arazoetan ETAk ez daukala sartzetik. ETAk bere problemak dialogatu beharko ditu instituzioekin, bere problemei dagokienez soluzioa. Errefrendoaz, guk ez dugu onartuko ETA eta instituzioen arteko akordioa badago, guri, gizarteari, dagokigun akordioa bada.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Lapurrek ez zuten oporrik hartu

Aste Santuan herria erdi hutsik geratu zela eta, lapurreta saio batzuk izan ziren Arrasaten. Uribe auzoko Kukua tabernan bertantxe harrapatu zituzten *in fraganti*; Izkiña tabernako lapurrak Ertzaintzak gelditu zituen Zornotzan kontrol batean, eta Zerkaostetako Lasagabaster arropa den-dako lapurrak ez dituzte harrapatu oraindik (3.000 pezeta baino ez zituzten eroan). Gainera, Ostiral Santutik (hilak 9) larunbaterako gauean Olarte kalean lau komertziotan zerrailak apurtzen saiatu ziren, ezer lortzeke.

Zabarteren greba eta azalpenak

Jesus Mari Zabarte preso arrasatearra gose greban dago berriro hilaren 3tik, Iean miaketa gogor bat jasan zuelako protestan. Bestetik, Zabartek karta bat bidali du Egunkaria eta Egin-era Joseba Egibar EAJko buruzagiaren bisitaren berri emanez. Zabartek dioenez, Egibarrek birritan eskatu zion ETAK hilabeteko tregua deklara zezala. "Begi bistakoa zen Egibar ez zetorrela galdetzerara, baizik eta nahasmena sortzera; behin baino gehiagotan aipatu zituen HBko ustezko 'onak' eta 'gogorak'", dio Zabartek bere gutunean. Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak EAJren "eran-



Sutea Zaldibarreko etxe zaharrean

Zaldibar frontoi pareko Mendikutetarren etxe zaharrean sutea izan zen joan den igandean. Biteri kaleko 10. zenbakidun etxe hau hutsik dago aspalditik, eta laster dira eraikuntza osoa behera botatzekoak, datorren astean seguru aski. Sua etxearen beheko solairuan hasi zen, eta iluntzeko 10ak aldera. Suhiltzailak etorri eta sua goiko pisuetara pasatu baino lehenago menderatu zuten. Antza denez, etxe abandonatu honetan mutiko koadrilak eta biltzen ziren jolaserako, eta halako batean, deskuidoren batean, suak beheko solairuan ihes egin zien.

tzukizun zuzena" salatu du: "Nola daiteke Salto del Negrora Egibarrek egindako bisitaren ondoren, hango egoeraren berri ez ematea?". Egibarrek ukatu egin zuen bere garaian Zabarteri tregua eskatu zionik.

Felix eta Sua-ri omenaldia

Astelehenean, duela hamar urte Arrasaten hil ziren Felix Badiola eta Antonio Garate, 'Sua', ETAKo kideen omenez ekitaldi bat eta manifestazioa egin zen. Felix eta Sua eibartarrak ziren eta auto batean esku artean zeukaten bonbak eztanda egin

zienean hil ziren 1983an. Bezperan Eibarren egin zen omenaldi bat, eta astelehenean auto lerrokada bat izan zen Deba Behetik Arrasatera. Ekitaldia Portaloian hasi zen eta Garibaiko aparkalekuan bukatu zen; bi gazteak hil ziren tokian bertan loreak jarri zituzten eta aureskua egin zen.

Alai zineman kalteak

Alai zinemako karteldegia gordetzen dituzten kristalak apurtu egin zituzten gauetz joan den astean. Zinemako arduradunek azaldu dutenez, bigarren aldia da hori gertatu izan dena hilabete eskasean.

Parking ordainduak herri erdialdean

185 garaje toki gehiago izango ditu Arrasatek Lau Kalen egiten ari diren obrak amaitzen direnean. Bertan 170 etxebizitza eta lokal komertzialak egiten ari dira, baina lurrazpian garaeetarako bi solairu egongo dira, Udalaren esku gainera. Garajeak nola erabili ez du erabaki Udalak orain arte. Bi aukera daude; bata, toki batzuk partikularrei uztea eta gainerako orduko *parking* gisan erabiltzea, eta bestea, garaje guztiak ordaintzeko *parking* izatea.

JAIOZAK


- Mikel Zabaleta Arrizabalaga, Martxoaren 19an.
- Xabier Lasaga Heriz, 29an.
- Ainhoa de Toro Arrieta, 31n.
- Maialen Calderon Perez, Apirilaren 5ean.
- Ari Birumbrales Zuazola, 11n.
- Aritz Vinacua Mielgo, 12an.
- Yericó Orduña Sanchez, 14an.
- Zuriñe Romero Llopis, 16an.
- Yoel Berenguer Oruna, 16an.

EZKONTZAK

- Emilio Inda Aranzabal & M^a Luisa Garcia-Etxabe Urreta, Apirilaren 2an. Zibilez.
- Prudencio Iraeta Garai & Miren Josune Gutierrez Aretxaga, 3an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Alejandro Gaztariaga Iriarte, Martxoaren 31n. 67 urte.
- Josefina Madinabeitia Zubia, Apirilaren 3an. 68 urte.
- Modesta Tudela Peribañez, 4an. 80 urte.
- Jose Errasti Azurmendi, 5ean. 73 urte.
- Leonor Pasamar Gomez, 7an. 85 urte.
- Benita Fernandez Fortuna, 7an. 84 urte.
- Pedro Sasieta Bolinaga, 15ean. 63 urte.
- Antonio Filarmendia Uraz, 17an. 71 urte.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467



MANOLO MOREIRAS *

Xacobeo 93

Santiago de Compostelan, Galiziako hiriburuan, Santiago Apostolu Handia, Jesusen jarraitzailearen hilobia gurtzen da orain dela hamaika mende baino lehenagotik. Aurten, 1993an, Munduko Topaleku Izpiritual eta Kultural bihurtu da Xacobeo 93, Urte Santua ospatzen denez.

Urte Santu Konpostelarra, historian dagoenik eta zaharrena, eta maiztasunik handienaz ospatzen dena, Calixto II. Aita Santuak ezarri zuen, 1119an. Santiago eguna, uztailaren 25a, igandean suertatzen den bakoitzean, Urte Santua ospatzen da. Gertaera hori 6,5,6,11 urtetako maiztasunez gertatzen da, eta horren arabera, mende honetan aurtengoa eta 1999koa ospatuko ditugu.

Ertaroko garai urrunetan bezala, munduko bazter guztietako milioika jendeak ekiten dio Galiziarainoko bidea-

ri, eta bide horren amaiera Katedralean izaten da. Santiagorako erromesak, bidean datorrela azkenean Katedral eder honetako dorreak ikusten dituenen, bere izpirituak sentitzen dituen sentsazioak deskribatzen ez du asmatzen. Katedral hura munduko ederrrena da askoren ustetan.

1992ko abenduaren 31n arratsaldean, Ate Santua irekitzearen ekintza sinbo-

likoarekin batera, hasi zen Urte Santua, Xacobeo 93.

Edozein galiziarrentzat, jai eta urte berezia da hau, eta nola ez, Euskal Herrian bizi garen galiziarrentzat ere bai. Han jaio ginen, baina hura adina maite dugu hemengo gure bizilekua. Azkenean sustraiak han ditugu, gure lurra da, han eta hemen, erdibana egon arren. Gainera, Galizia eta Euskal Herria oso antzekoak dira.

Guretzat Urte Santua tradizioa da, gure arbasoen ohitura, eta inor ez dadila Galiziara joan Santiagora joan barik. Arrasatear guztiak gonbidatu nahi nituzke guretzat hain berezi diren egun hauetan hura bisitatzerako joantera. Merezi du joateak. Gure herritarrek maitasun handiz hartuko zaituzte.

* GALIZIAKO ELKARTEKO PARTAIDEA

(Erredakzioan itzulia)

.....

“Arrasatear guztiak gonbidatu nahi nituzke guretzat hain berezi diren egun hauetan Galizia bisitatzerako”

USTEAK USTE

KALEAK KAKAZ GARBI

Jakina da azkenaldian Donostia, Gasteiz eta estatuko zenbait hiritan, tramankulu berezietz baliatuz kasu batzuetan, txakurren gorotzak kaleetatik uxatzeko neurriak hartzen hasiak direla. Hainbat lekutan jabearentzat isun gogorrrak jarriko omen dira, gainera. Ez da nere asmoa Arrasaten antzerako neurrien ezarpena eskatzea, inongo lotsarik barik animalia edozein izkinatan aske uzten duten animalien salaketa egitea baino.

Higuingarria baita Zurgin Kantoitik gora abiatzea; azken laupabost hilabetetan behintzat, kaka morokilak zeharkatu beharrak gura adina beharleku eman izan digu egunero bide hori egin izan dugun makinatxo bati, hala ere, morokilaren zantzua utziaz zoaz auskalo noraino. Asfaltuko arratoiak diren usoez ez dut barbarik egin gura ere.

Ezagutzen dut ohitura bat Zurgin Kantoiko txakurren jabeei, gutxienez, aplikatu egin beharko litzaiekeena: muturra kakan igurtzi ostean, egokia den tokiraino eramanez animalia, hurrengoan, bertan egin dezan agindu modura.

JON GARAI

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aukiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnok: 79 58 11 / 79 59 76

TXOKO TABERNA
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnok: 79 20 10 ARRASATE



Auzo guztietan ludotekak irekitzea eskatu dute PSEko zinegotziek.

Aurrekontuak datorren astean onartuko dira

Aurtengo Arrasateko udal aurrekontuak, datorren astean onartuko ditu pleno edo udalbatzak, hilaren 30ean, ostiralez. Aurrekontu ajustatuak izango dira, krisi garaira moldatutakoak. Hau da, gastu arruntei eutsi egingo zaie, baina inbertsioak ez gehitzeko erabakia hartu da. 3.000 milioi pezeta baino zerbait gutxiago izango dira aurrekontuetan, baina horietarik 500 inguru dira alde batera edo bestera joan daitezkeenak, gainerakoak gastu finkoak dira.

Aurtengo aurrekontuak atzerapen nabarmenez datoz. Une hauetan, Arrasateko udala aurrekontu luzapenarekin ari da funtzionatzen. Dena den, ordainketetan atzerapenik ez da gertatu, eta ohi baino larritxoago ibili izan diren arren, ez da arazo berezirik izan, alkatetzaren esanetan.

PSEren kritikak

Aurrekontuak direla eta, PSEko zinegotziek proposamen zerrenda bat eman dute argitarara. Sozialistek auzoei arreta gehiago

eskaintzea eskatzen dute, Udalaren ekimena deszentralizatzea, eta iniziatiba konkretuak, hala nola auzoetan ludoteka eta zaharren-egoitzak irekitzea. Arrasate Press eta Arrasate Telebistaren alde daudela diote, era berean, PSEko zinegotziek, baina aldiakarian erdarazko gehigarria eta telebistan eguneroko ordu erdiko erdarazko albistegia eskatzen dituzte. Udalak kale garbikuntzari ere arreta gutxi eskaintzen diola diote, gainera, PSEkoek Erdialdean frontoi bat egitearen aurka daude sozialistak, eta Amaia antzokia berritzeko gastua kritikatu dute. Lanon aurrekontua 217 milioikoa da, obrak nahiko aurreratuta daude dagoeneko eta Sanjuanetarako irekita egongo da antzokia.

Sozialisten kritikez gain, alkatetzak ez du uste arazo berezirik izango denik aurrekontuak onartzeko. Iaz, punturik eztabaidatsuenetako batean, HBk era EAK proposatutako udaltzaingoaren anpliazioa atzera bota zuten EAJ eta PSEk, eta aurten berriro auzi bera plazaratu daiteke plenora.

Hauteskunde zerrendak


Espainiako Legebiltzararako ekainaren 6rako hauteskundeak konbokatutuztela eta, hauteskunde zentsuaren zerrendak jendaurrean jarri dituzte udaletxean, okerrik balego erreklamatu eta zuzentzeko. 26a arte egunero egongo dira zerrendak udaletzeko arkupeetan, goizeko 9etatik iluntzeko 9ak arte. Erreklamatzeko, astelehenetik ostegunera, goizez 10etatik 12.30ak arte eta arratsaldez 3.30etatik 6etara. Ostiralez, goizez bakarrik.

Biztanlegoa behera

Arrasatek 175 biztanle galdu diru urtebetean. Erroldako datu ofizialak ezagutzera eman ditu Udalak eta, horren arabera 25.316 biztanle ditu aurten Arrasatek. Biztanle gorabeheran, ia parra daude jaiotzak (165) eta heriotzak (175), baina Arrasatera bizi izatera etorri direnak (162), hemendik joan direnak baino asko gutxiago dira, 360 bizilagun joan baitira Arrasatetik iaz, ia-ia pertsona bat eguneko.

Arrasate urteen buruan

| | | |
|------|--------|-----------|
| 1900 | 3.273 | biztanle |
| 1940 | 8.834 | |
| 1965 | 17.738 | |
| 1985 | 26.633 | (gehiena) |
| 1993 | 25.316 | |



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

• ARTEA •

Esulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



Roman Balanzategi eta Iñaki Azkuna Osasun sailburua hitzarmenaren sinaduran.

Lagun-Aroko osasun zerbitzuan aurrerapide garrantzitsua

Lagun-Arok eta Osakidetzak hitzarmen bat sinatu dute osasun asistentzia Lagun-Aroren bitartez ziurtatuta daukatenez zerbitzu gehiago eduki ahal izateko eskura. Ostegunean sinatu zen Arrasaten hitzarmena, Roman Balanzategi Lagun-Aroko lehen-dakariaren eta Iñaki Azkuna Jaurlaritzako Osasun sailburuaren artean.

Lehen mailako asistentzia da, batez ere, hitzarmenak hartzen duena. Hau da, Lagun-Aroko zerbitzuan izena emanda daukanak Osakidetza kabezerako medikuak, pediatria zerbitzuak, larrialdiak eta etxerainoko asistentzia eskura izango ditu. Larrialdietan

du berebiziko garrantzia honek, eta leku isolatuetan bizi den jendeak ere igarriko ditu hitzarmenaren onurak.

Lagun-Aroren osasun asistentzia zerbitzua 1959an sortu zen, sistema publikoak ez zuelako nahi izan kooperatibisten asistentzia bere esku hartu. Gaur egun, 45.889 pertsona daude Lagun-Aroko zerbitzuan izena emanda, kooperatibista talde osoa.

Hitzarmenaren sinaduran, Iñaki Azkuna osasun zerbitzu guztien elkarlanaren garrantzia nabarmendu zuen, eta urte guzti hauetan ere Lagun-Arok eskaini duen zerbitzua goraiatu zuen.

Informatika, hurbilago

Arrasateko Udalak material informatikoa doan emango die herriko zenbait elkartari. Udaletxean bertan erabilitako ordenagailu eta inprimagailu zaharrak dira, baina oraindik erabiltzeko moduan daude. Trikitixa Eskolak, AED elkarteak, AEK-ko Erdur euskaltegiak eta Hies Ekimenak jasoko dituzten makinak. Bestetik, hemendik gutxira Monterroren Informatika Gela bat irekiko da, herritarrek bisitatzeko, liburutegia bisitatzen den bezalaxe. Monitore bat izango da bertan eta uda baino lehenago irekita egongo da.

Tasak ordaintzeko epeak

Aurtengo ur eta zabor tasetarako lehen hiruhilekoa ordaintzeko epea zabalik dago. Borondatezko epeak maiatzaren 20a arte dirau. Handik aurrera, ordaindu gabeko ordainagiriak % 20ko gainkargaz kobratuko ditu Udalak. Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea, bestetik, hilak 30 ixten da.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIEN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



JOSU

**TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA**

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66




Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

**Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38



Auto arruntek bost urte betetzean igaro behar dute orain beren lehen ITV azterketa

Autoen ITV azterketa Bergaran gainditzeko aukera

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT, edo ITV, erdarazko sigletan) hurbilago pasatzeko aukera izango dute autoek, Eusko Jaurlaritzaren plangintza aurrera badoa eta Bergaran ITV tailer bat sortzen bada.

Gaur egunean, Gipuzkoan ITV froga egiteko Urnietan dago tailerra. Beste bat dago Araban, Jundizen, eta Bizkaian bi daude ofizialak, Arrigorriaga eta Trapagan. Beste tailer pribatu batzuk Martutene eta Usurbilen daude. Edonola ere, azterketa gainditzeko, askok nahiago izaten du Miranda de Ebro-ra joatea, Burgos-eko tailer hartan askoz errazago ematen baitituzte ontzat erdi-

purdiko autoak. Auto normal bat, turismo bat, bost urte betetzean eraman behar da ITVra estrainakoz. Gero bi urtetik bi urtera, bederatzi urte bete arte, eta gero urtero. Duela ez asko, lehen azterketa zazpi urte betetzean zen. Furgoneta eta antzerakoak bi urtera, lau urtera eta gero urtero pasatu behar dira ITVtik, eta kamioi eta autobusak urtero.

Jaurlaritzaren plangintzak lau tailer gehiago sortzea eta oraingo publikoak pribatu bihurtzea ekarriko luke. Pribatizazioa dela eta, tailer ofizialetako langileek ordukako grebak iragarri dituzte ostegunetarako hurrengo asteetan.

MCC taldea Arriortuarekin lankidetzan

Jose Ignacio Lopez de Arriortua enpresari bizkaitarra Zornotzan eraiki nahi duen autoentzako lantegian MCC taldeak ere parte har lezake finantzazioan, Euskal Herriko beste talde indartsu batzuekin bat (BBK, BBV, Kutxa edo Iberdrola, adibidez). Volkswagen enpresako zuzendariarekin egon zen Bilbon Arriortua proiektuaz hitz egiteko, eta MCCkoak ere izan ziren bertan. Bestetik, Actualidad Económica ekonomia-astekari espainiarrak, euskal enpresa handien *ranking*-ean MCC-ko Eroski (2.a) eta Fagor (4.) jartzen ditu bost lehenen artean. Lehen postuan Iberdrola dago.

Deba Garaiko Gurutze Gorria

| Martxoa | Guzt. | Arrasate |
|--------------------|-------|----------|
| Trafiko istripua | 10 | 1 |
| Oinezko istripua | 9 | 2 |
| Lan istripua | 1 | 1 |
| Etxeko istripua | 4 | 2 |
| Kiról istripua | 4 | 2 |
| Premiazko gaixoa | 38 | 14 |
| Trasladuak (arin) | 48 | — |
| Trasladuak (larri) | 15 | — |
| Hildakoak | 2 | — |



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Larazaintzako
mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Aste Santuetako oporrak direla eta, Andoni Azpiazu, bere gurasoak eta Rosa eta Kontxi, Frantziako Euro

Disney bisitatzen izan dira. Haeuz gain, beste arrasatear asko ere bertan ibiliko ziren seguruenik.



61eko Kintoek urteko jaia ospatu zuten pasa den larunbatean. Eguerdiko 12.30etan meza izan ondoren, Hamaika Gazte Elkartera joan ziren bazkaltzera. Kuadrila ederra bildu da aurten ere.



Citroen Xantiaren aurkezpen ofiziala egin zen pasa den ostira-lean Chapimeko lokalean. Begirale eta kurioso asko egon ziren kotxearen ezaugarriak ezagutzen. Gustokoa baduzue, goi mailako kotxea da eta ez pentsatu merkeena denik, 2 milioitik 3 t'erdira balio omen ditu. Polita bai, baina ez denon poltsikorako!

Aste Santuetako jai egun hauetan elur asko egon ez arren, batzuk eskiatzeko ere aprobetxatu dute.

Lazki, Amaia, Pedro, Garita, Caracol, Harrestiti... hamar lagunez osatutako kuadrila Frantziako Saint Laryn egon da lau egunez. "Elur gutxi eta eguraldi txarra egin digu baina berriz joateko gogoarekin bueltatu naiz" esaten digu Harrestik.



Pasa den larunbatean, apirilak 17, Altamirako Jaiak ospatu ziren. Gusto guztietako ekintzak izan ziren: ume zein nagusiei zuzendutakoak:

haur jolasak, txokolata-da, jaialdiak eta abar. Eguraldi zoragarria, giro ezin hobea... jaiak ospatzeko aproposagorik bate?

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**Plus Ultra
taberna**
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

URRATS
AHOLKULARITZA
CARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

IZEN PROPIOAK



Hiru handiak: Anboto, Aizgorri eta Gorbeia zeharkatzeko AEDK antolatutako irteerak izugarritzko arrakasta izan du. Bertan, 10 eskoriatzar,

6 atxabaltar, 3 aramaio-tar eta 37 mondrauetarrek hartu dute parte. Hasieran eguraldi eskasa izan bazuten lagun, mendizale profesional hauek

ez zuten oztoporik izan, eta ibilaldia hasi zutenia denak lortu zuten hirurak igotzea. Zorionak eta askotan errepika dabila!

● Arrasateko Txirrindulari Elkarteak zuzendaritza berria du. **Joseba Etxabigel** da lehendakaria, **Rafa Etxabe** lehendakari ordea, **Jorge Markiegi** diruzaina eta **Iñaki Fernández** idazkaria. Bokalak, **Emete Gallastegi**, **Adolfo Ruiz de Austri**, **Jose Angel Otxoa**, **Pedro Alonso** eta **Eugenio Balzategi** izango dira.

● San Viator Ikastolako Kontseilu Zuzendaritzan, **Arantza Akizu Olano** da lehendakari berria eta **Jon Arraiaran Elorza** lehendakari ordea. Horretaz gain, gurasoen ordezkariak, irakasleak eta bazkide kolaboratzaileak orain artekoak izango dira.

● **Julen Arexola-Leiba**, 30 urteko arrasatearra, Irakasle Eskolako irakaslea, Madrilen izan zen ostegunean, hizkuntzari buruzko ihardunaldi batzuetan mahainguru batean parte hartzeko. UNEDek eta Konplutenseko Filologia Departamentuak antolatzen duten mahainguru honetan, katalan eta galiziar bat ere izan ziren.

Orain dela aste pare bat Galizia aldeko bisitari bat izan genuen Arrasaten.

Jose Luis Villaloba Galiziatik

Iruneraino herriz herri ibili zen, eta Arrasate ere bisitatu zuen bere bizikleta gainean. Egun batzuk bertan igaro eta gero, Arlabanen gora ikusi genuen azkenengo aldiz. Bidai on!



Altzariak Diseinua

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

PUB HAIZEA

arrasate

SAMEGO GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



**Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.**

**Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.**

**Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.**

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Bigarren fasea bukatzeaz

Halaxe da bai, bukatzeaz dago bigarren fasea Zaldibarreko txapelketan. Saikapen kontuak pil-pilean, beraz, eta emozioa goiaren-goian.

Une erabakior hauetan, eta definitiboa ez bada ere, A, B eta C multzoetan gauzak nahiko garbi daudela esan dezakegu. Bi ihardunaldi hauetan hutsik egiten ez badute, batetik *Zuloak* eta *Argi Ibili*, bestetik *Suministros Industriales Ugarte* eta *Sisti-Sasta*, eta hirugarrenik *Adelaida Haizea* eta

Mikelos taldeak izango ditugu final-laurdenetan.

D multzoari dagokionez, erabakia airean dago oraindik. Saikapean, lehenengo sei taldeen artean bi puntutako aldea baino ez dago, eta beraz ikusi egin behar zer gertatzen den hurrengo bi aste-buruetan.

Mondrauetarrok: Zaldibarren kristoren norgehiagokak dituzte zain. Ez galdu bertatik kukutxoak egiteko aukera!

**NUEVO
faberna**

Bañez Dokorea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tlfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pza / hilero?


SEGURASKI BAIETZ !

| a taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ZULOAK | 5 | 5 | 0 | 0 | 28 | 4 | 10 |
| ARGI IBILI | 5 | 4 | 1 | 0 | 26 | 8 | 9 |
| ARRASATE KIR. | 5 | 3 | 0 | 2 | 17 | 13 | 6 |
| NUEVO TABERNA | 5 | 2 | 1 | 2 | 14 | 15 | 5 |
| ARRASATE KRIST. | 5 | 2 | 0 | 3 | 14 | 15 | 4 |
| LOS DIMY | 5 | 2 | 0 | 3 | 9 | 17 | 4 |
| TXOKO TABERNA | 5 | 1 | 0 | 4 | 9 | 30 | 2 |
| PEPELUS | 5 | 0 | 0 | 5 | 12 | 27 | 0 |
| GUZTIRA | 40 | 19 | 2 | 19 | 129 | 129 | 40 |

| b taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|----------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| SUM. UGARTE | 5 | 5 | 0 | 0 | 24 | 9 | 10 |
| ZIZTI-ZAZTA | 5 | 4 | 0 | 1 | 29 | 11 | 8 |
| DIEGO ANTONIO | 5 | 3 | 0 | 2 | 23 | 15 | 6 |
| KAIXO LENIZ | 5 | 3 | 0 | 2 | 25 | 19 | 6 |
| LORAT. POTROAK | 5 | 2 | 0 | 3 | 16 | 19 | 4 |
| NOSKI | 5 | 2 | 0 | 3 | 26 | 23 | 4 |
| MONTERREY TAB. | 5 | 1 | 0 | 4 | 9 | 30 | 2 |
| PUBLICOOP | 5 | 0 | 0 | 5 | 7 | 33 | 0 |
| GUZTIRA | 40 | 20 | 0 | 20 | 159 | 159 | 40 |

| c taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ADELAIDA HAIZEA | 5 | 4 | 1 | 0 | 17 | 5 | 9 |
| MIKELOS | 5 | 3 | 2 | 0 | 12 | 7 | 8 |
| NOTXINGAN FLO. | 5 | 3 | 0 | 2 | 14 | 12 | 6 |
| GURE LEKU | 5 | 2 | 1 | 2 | 23 | 15 | 5 |
| ZULUS | 5 | 1 | 3 | 1 | 16 | 14 | 5 |
| DANOK LAGUN | 5 | 1 | 1 | 3 | 10 | 16 | 3 |
| JODO FLORO | 5 | 1 | 1 | 3 | 11 | 14 | 3 |
| BIZKORRAK | 5 | 0 | 1 | 4 | 5 | 25 | 1 |
| GUZTIRA | 40 | 15 | 10 | 15 | 108 | 108 | 40 |

| d taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|-----------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| TRIKITI | 5 | 3 | 1 | 1 | 15 | 7 | 7 |
| LEINTZ GARAGAR. | 5 | 3 | 1 | 1 | 14 | 11 | 7 |
| MOTZ | 5 | 2 | 2 | 1 | 14 | 13 | 6 |
| URMAY B. K. | 5 | 2 | 1 | 2 | 12 | 12 | 5 |
| KOKKAS | 5 | 2 | 1 | 2 | 16 | 17 | 5 |
| LOS HEREDIA | 5 | 1 | 3 | 1 | 13 | 15 | 5 |
| BETRAYER | 5 | 1 | 1 | 3 | 15 | 19 | 3 |
| LASO-ARREGI | 5 | 0 | 2 | 5 | 9 | 14 | 2 |
| GUZTIRA | 40 | 14 | 12 | 14 | 108 | 108 | 40 |



Jabi Garzia (Antolatzailea eta Kriskibaldakoa)

Zaldibarreko txapelketa berriro bultzatu behar zela, orain dela hiru urte lehenengo bilerara joan, eta birritan pentsatu gabe Jabi Garzia, 28 urte, antolaketa lanetan murgildu zen burubelarrari. "Konpensaziño gutxi eta jaleo ugari", halaxe laburtzen du esperientzia hori. Baina norbaitek egin beharreko lana da, eta eskerrak Jabi eta konpañiak animo-segitzen dutela.

la zer aportatu dion Zaldibarreko txapelketak Arrasateri. "Buff, gauza mordo bat, jente pilie mibiru dou, jokalarixek eta ikusliek. Mondrauetar asko desiatzen egoten da asteburue ailegetako. Zaldibar espeziala da". Halere, begi onez ikusten du Uribe-auzokoen inizatiba. "Ondo dau, hemen kanpuen geldittu dan jentie geldi egon ez dain". Urteak daramatza Jakib bere

taldearekin, Kriskibaldarekin txapela lortu nahian. Lan zaila da, eta momentuz zorterikez. "Orokorrrien hemen kriston nibela dau, eta gu barrez, estankaute geratugare". Ez da harritzekoa, beraz, orain arte Kriskibaldakoe bi bazkari apostatu eta biak galtzea "Hirugarren batién irabazteko aukerak euki, bañe kontrariuek etzien presentau" Zure favoritoa? "Suministros Ugarte".

ITURRIOTZ
taberna
Girorik
jatorrena!
Tfnoa: 79 16 04

LIZARRA taberna
Leintzibar kalea, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35

Bodisca s.l.
Zeramikako pabimentu eta gaineztaldurak
Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

I
R
T
A
B
E
R
N
A
Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

BELARRIRA

◆ **Jokalari bat kalera**

Aste honetako Disziplinari Batzordeak hartutako erabakiaren ondorioz, Leintz Garagardotegia taldeko jokalaria bat txapelketatik kanpo geratu da, partiduko epailearekin edukitako tirabirak medio.

Laso Arregi taldeko jokalaria batek ere arazoak euki zituen epaile batekin, baina kasu honetan eztabaida moteltxoagoa izan omen zen, eta beraz momentuz txartel horia ikusiko du.

◆ **Afarien zozketak**

Oporrak eta gero, joan den astelehenean ATBn burututako zozketan, Kaixo Leniz eta Leintz Garagardotegia taldeek irabazi zituzten aste honetako afariak.

Lehenengoak pasa daitezela Txoko tabernatik, eta bigarrenak Hostaletik.

Hori bai, batzuri zein besteei, batez ere on egin!

◆ **Partidu onenak**

Asteburuko partidurik interesgarrienak: Noski - Kaixo Leniz, Los Heredia - Laso Arregi, eta Zuloak - Arrasate Kristaldegia.



Zaldibarko txapelketan azken esfortzuak egiteko garaia iritsi da. Kasu batzuetan, ahalegin horiek golak lortzeko izango dira, beste batzuetan, berriz, zuzen barrura doan baloia ateratzeko.

Azken esfortzu horien lekuko dugu goiko argazkia. Ez dakiguna, jokaldi honetan golik lortu ote zuten ala ez!

EMAITZAK

A TALDEA

| | |
|-----------------------|--------------------|
| Argi Ibili 2 | Nuevo taberna 2 |
| Zuloak 3 | Arrasate Kirolak 2 |
| Arrasate Kir. 6 | Pepelus 2 |
| Txoko taberna 6 | Los Dimy 4 |

B TALDEA

| | |
|--------------------------|-----------------|
| Sum. Ind. Ugarte 3 | Diego Antonio 1 |
| Zizti Zazta 3 | Kaixo Leniz 5 |
| Noski 3 | Monterrey Tab 0 |
| Lorategi Potroak 5 | Publicoop 3 |

C TALDEA

| | |
|-------------------------|---------------------|
| Mikelos 3 | Danok Lagun 3 |
| Adelaida Haizea 4 | Notxingan Florest 1 |
| Zulus 4 | Jodo Floro 4 |
| Bizkorak 2 | Gure Leku 14 |

D TALDEA

| | |
|-------------------------|---------------|
| Trikiti 4 | Laso-Arregi 1 |
| Leintz Garagar. 2 | Urmay B. K. 0 |
| Betrayer 3 | Motz 3 |
| Los Heredia 4 | Koxkas 3 |

Trikite S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 23

Zaldibar

08.45 Trikiti / Koxkas
 10.00 Zuloak / Arrasate Kristaldegia
 11.00 Lorategi Potroak / Diego Antonio
 12.00 Zulus / Notxingan Florest
 13.00 Argi Ibili / Los Dimy
 14.00 Mikelos / Gure Leku
 15.00 Zizti-Zazta / Monterrey taberna
 16.00 Leintz Garagardotegia / Motz
 17.00 Noski / Kaixo Leniz
 18.00 Bizkorrak / Danok Lagun
 19.00 Adelaida Haizea / Jodo Floro

Igandea 24

Zaldibar

08.45 Txoko taberna / Nuevo taberna
 10.00 Pepelus / Arrasate Kirolak
 11.00 Sum. Indus. Ugarte / Publicoop
 12.00 Los Heredia / Laso Arregi
 13.00 Betraye / Urmay B. K.



Eguraldi onak lagunduz gero, asko izan ohi dira Zaldibarko norgehiagokak ikustera hurbiltzen diren arrasatearrak. Batzuk interes zuzena dutelako, talderen baten nahiz bestean jokatzeko dutelako, alegia. Beste batzuk, berriz, futbito go-goko dutelako soilik.

URIBE AUZOKO FUTBITO TXAPELKETA

| a taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|----------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| KE OXTIAS! | 3 | 1 | 2 | 0 | 10 | 3 | 4 |
| POTROSORRI | 3 | 2 | 0 | 1 | 8 | 10 | 4 |
| ANBOTOSTE K.T. | 3 | 2 | 0 | 1 | 7 | 6 | 4 |
| GABELAS | 3 | 1 | 1 | 1 | 10 | 2 | 3 |
| TABERNIKOLAS | 3 | 1 | 1 | 1 | 10 | 6 | 3 |
| EZKINAKO HONTZAK | 3 | 0 | 0 | 3 | 3 | 21 | 0 |
| GUZTIRA | 18 | 7 | 4 | 7 | 48 | 48 | 18 |

| b taldea | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|------------------|-----------|-------|-------|-------|-------|-------|----------|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ALPARGATA TURBO | 3 | 3 | 0 | 0 | 12 | 6 | 6 |
| AUF DEM KOFFER | 3 | 2 | 1 | 0 | 4 | 2 | 5 |
| SOKOAKOAK | 3 | 2 | 0 | 1 | 10 | 8 | 4 |
| LAUTHERBRUNNEN | 3 | 1 | 1 | 1 | 7 | 7 | 3 |
| BAYERN PROMESAS | 3 | 0 | 0 | 3 | 5 | 10 | 0 |
| BAYERN DE LEINTZ | 3 | 0 | 0 | 3 | 4 | 10 | 0 |
| GUZTIRA | 18 | 8 | 2 | 8 | 42 | 42 | 18 |

Hiru ihardunaldi jokatu dira Uribe-auzoko txapelketa berrian, eta B multzoan behintzat kontuak ia-ia erabakita daude. Ziurtzat eman daiteke *Alpargata Turbo*, *Auf dem koffer* eta *Sokoakoak* taldeak bigarren fasean izango ditugula. Laugarren sailkatua jakitea baino ez da falta.

Bien bitartean, A multzoan bost talde puntu bakarreko diferentziaz aurkitzen ditugu, eta beraz, adi egon behar, ia zer gertatzen den. Emozioa behintzat ez da faltzako!

Trikipublic

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

● *Fermin Muguruza*

Rocka buruan eta ibili munduan

Urte asko da Fermin rockaren munduan sartu zela, hasiera batean Kortatun eta gaur egun Negu Gorriak taldean. "Rocka eta euskara" izenburupean AEKek Arrasaten antolatutako mahainguruan hartu zuen parte Ferminek.

— Nola gogoratzen duzu Euskal Rockaren hasiera?

— Oso historia laburra izan du, euskaraz egiten den rockak hamar urte inguru bakarrik dauzka. Berbena taldeak hasi ziren ingelesezko hit-paredeen bertsioak egiten, hor hasi zen nire ustez euskaraz egiten den rock-aren historia. Gero Errobi, Itoitz, Zarama... eta ondoren boom-a gertatu zen, talde piloak sortu zelako, baina oso historia laburra da eta horren historia laburra izateko, uste dut euskal rockak lorpen handiak gauzatu dituela. Esate batera, Negu Gorriak euskaraz abesten ari da eta ia ia mundu osoan ezaguna egiten, Europan, Japonen eta Ameriketean. Oso denbora gutxi daramagu eta harro egon behar dugu azpiegiturarekin, euskaraz egiten den rockaren inguruak, posible egiten baitu gure hizkuntzan abestea.

— Eta Negu Gorriakentzako hasierak?

— Hasieratik oso argi genuen euskaraz abestea nahi genuela, estilo musikalak aldatuz nolabait, baina beti euskaraz. Hasiera batean bi anaiok Kortatu sortu genuen eta denborarekin Kakirekin hartzen genuen parte kontzertu batzuetan. Berarekin eginiko elkartruke musikalaren ondorioz, zerbait berria sortzea pentsatu genuen eta hortik atera baikegunen gure lehen diska. Denborarekin, Anestesiako Mikel bajua jotzen eta Bat taldeko Mikel bateriajole bezala sartu ziren. Bost partaideok iaz egin genuen bira bat eta aurten diska berria prestatu dugu.

— Musika ezagupenei edo solfeoari, zelako garrantzia ematen diozu?

— Jakina da asko laguntzen duela baina ezin daiteke esan beharrezko direnik. Esate baterako, historian izan dira kitarra-jole batzuk, solfoa jakin gabe, beste inork baino askoz hobeto jotzen zutenak. Horregatik, bai, solfeoari garrantzia ematen diot, baina ez da beharrezkoa.

— Eta ezagupen teknikoak?



— Beno, beharbada talde guztien joera egindako lana maila guztietan hobetzea da, baita teknikoki ere. Adibidez, Kortatun sartu ginenean ez genuen ia ia ideiarik baina, abentura horretan sartu ginen. Denborarekin abesten eta baita jotzen ere, onera egin dugun saltoa igarri dela uste dut. Gauzak aldatuz joan dira, konposizioa eta nire ahotsa ere bai, gehiago lantzen dugu.

— Gaztetxeek zein mailatan lagundu diote euskal rockari?

— Nire ustez Gaztetxea Euskal Herriko azpiegituran dagoen pieza klabea da. Gu, adibidez, Gaztetxeetan hasi ginen eta talde berri askok ere ibilbide bera jarraitu dute. Bestalde, musika ondo sustraitzeko beti eskatu dugun zirkuitoa, Gaztetxeek bete dute nolabait. Horregatik, musikagintzarako

Gaztetxea beharrezkoa izan da eta oraindik beharrezkoa da.

— Atzerrian eginiko kontzertuetatik zelako inpresioa jaso duzue?

— Nik beti esaten dut Euskal Herrian jotzen dugunean, etxean jotzen dugula. Kontzertu baten jendeak, animatu eta zurekin kantatzea, benetan hunkigarria izaten da. Gainera, jende honek badaki zehatz mehatz zer esaten duzun abesti horietan. Azken finean, ikusle-entzulearekin komunikazio bat sortzea izaten da gure helburua. Nahiz eta jendeak abestien esanahia ulertu ez, askotan komunikazio hori lortu daiteke. Horretaz gain, diska bakoitza bere itzulpenarekin kaleratzen dugu; adibidez, diska Japonen kaleratzen badugu, japonieraz eta euskaraz agertzen dira abestien letrak. Honekin, entzuleak taldearen norabidea eta ideologia ezagutzen du eta identifikazioa lortzeko bidea errazten du. Aurten kaleratuko dugun diskako abestiak ere lehendabizi Euskal Herriko herri desberdinetan abestuko ditugu eta irailan Europa aldera joango gara.

● **“Euskal rockak duen historia laburrean lortu dugun azpiegiturak posible egiten du gure hizkuntzan abestea”**

UCEM: industri krisiaren adibide larriena

Luis Fernandez

Ekonomi krisiaren eragina Arrasate eta inguruan ere larri nabaritzen da. Larunbat honetan, sindikatuak Bergaratik Arrasaterako martxa antolatu dute, Deba Garaiko egoera kaskarra salatze-ko. Arrasaten bertan, une honetan kinka larrian dauden bi enpresa UCEM-Transformados Metalicos eta UCEM-Cerrajera dira, eta bertako langileek mobilizaziotan dihardute egun hauetan.

Transformados eta Cerrajera enpresetako langileek beren mobilizazioekin jarraituko dute datorren aste osoan zehar. Ostiral honetan bertan Donostiako Kursaal kasinoa okupatzekoak dira, eta larunbat goizez Bergaratik Arrasaterako martxa sindikal bateratuan hartuko dute parte. Datorren astean zehar, gauak enpresan itxita igaroko dituzte langileek txandaka.

Arrasateko bi enpresa hauen jabe den UCEM Korporazioak Transformados itxi egin nahi du (99 langile), eta Cerrajeran 26 kaleratze-espediente ireki ditu. Bi enpresetako langileek bat egin dute

D
**onostiako
Kursaal kasinoa
okupatzekoak
dira langileak
ostiral honetan,
eta datorren
astean gauero
itxialdiak egingo
dituzte lantegian**

plangintza gogor horri aurre egiteko eta ekintzetan ari dira aspalditik. Joan den ostira-lean, greba egin zuten eta bi enpresetan, autobusean joanda, 120 langilek UCEMek Donostian duen egoitza okupatu egin zuten, eta UCEMeko kontseilari delegatuarekin, Iñaki Olaizolarekin, egon ziren. Ez zuten ezer argirik atara: Olaizolak Transformados-ekoentzat ustez prest zegoen alternatiba (langileak Gasteizko Estampaciones San Ignacio lantegian berriro kolokatzeta) zintzilik dagoela aitortu zuen. Gainera, Cerrajerarako plangintzan jendea kaleratzea ezinbestekoa dela esan zien Olaizolak, bestela ez duela dirurik sartuko aurrikusita zegoen finantza talde frantziarrak. Frantziarrek baldintza batzuk jarri dituzte dirua inbertitzeko eta horietarik bat Cerrajeran langile kopurua 72 lagunetan uztea da. Hala ere, UCEM Korporazioko zuzendaritzak beste hamar langiletan gutxitu nahi du plantila, frantziarrek eskatzen dutena baino areago.

ALTERNATIBA EZA

Zuzendaritzak alternatibarik eskaintzen ez zuela ikusita, Donostiako okupaziotik Arrasatera bueltan asanblada egin eta langileek beren jarre-



ra gogortzea erabaki zuten. Manifestazioa egin zuten ostira-lean bertan, eta aste honetan arratsaldero bildu dira enkartelatuta Portaloian. Ostiralez, Kursaal kasinoa okupatzekotan dira, "Arrasaten ostutako diruarekin erosi duten hori", langileek asanblada batean aipatu zuten. Kursaalako jabea UCEM Korporazioa bera da, eta ugazaba berena da Roneo enpresa ere.

Roneon ere arazo ekonomikoak daudela esan zuen Olaizola kontseilari delegatuak, 2.000 milioiko zuloa daukala bankuekin. Martxoan 'Cinco Dias' agerkari ekonomikoak azaldu zuenez, Roneon ere 60 lanpostu arriskuan leudeke. Transformados eta Cerrajerako langileek Roneokoen elkartasuna bilatu nahi dute; asanbladan langile batek bota zuenez, "denok goaz



untzi berean, eta kapitaina mozkortuta dago". UCEM taldeak kanpoko akzionistekin konpromezuak dauzkala diote langileen ordezkariak, bereziki Mercacapital akzionista nagusiarekin. Mercacapital, enpresak erosten eta saltzen negozioa egiten duen konpainia bat da.

Datorren asteko itxialdi edo entzerronekin ahalik eta presio handiena egin nahi dute. Izan ere, maiatz hasieratik 15era erabaki behar dute epaitegiek zer egin Cerrajerako kanporatze espedienteekin.

Cerrajerarena baino ilunago dago akaso Transformados-en etorkizuna. Bertako 60 langile Estampaciones San Ignacio enpresa arabarrean sartuko zirela agindu zuen UCEMek. Joan den astean, 60 horiek beharrean, 40 birkolokatze aipatu zituen Iñaki Olaizola kontseilari delega-

tuak, eta gainera UCEMek Gasteizko enpresa horren beste 30 eszedenteren gastuak ordaindu beharko lituzke. Olai-zolak esan zuenez, torlojungintza sekzioa dagoeneko itxiztat jotzen dute UCEMen, eta butanokoari oso etorkizun txikia ikusten diote. Beraz, baldintzak oso kaskarrak dira eta esperantza urriak dira alde horretatik. Langileen arabera, Korporaziotik zera esaten

diote azken batean: "Zeuok joan, edo geuk bidaliko zaituztegu".

LUR INDUSTRIALARI EUSTEA

Langileek interes berezia dute Udalak bi enpresen lurzoru edo terrenoen kalifikazioari euts diezaion. Izan ere, orain Cerrajera eta Transformados-eko inguruak 'lur industrial' kalifikazioa dauka, baina UCEM Korporazioak kalifikazio hori kentzeko kontakturen batzuk izan ditu Udalarekin, iturri sindikalen arabera. Etxeak egiteko kalifikazioa lortuko balute, adibidez, UCEMek ez luke arazo gehiago enpresak ixteko eta gero terrenoa salduz edo harekin espekulatuz etekina ateratzeko.

Lurak 'industrial' izaten segitzeko konpromezua hartua dauka Udalbatzak, martxoan langileek aurkeztutako mozio bat onartu baitzen bertan, baina hala ere UCEMeko maniobrez ez dira fio langileak, beste lantegi batzuk zeuden terrenoekin zer egin duten ikusita, inon enplegurik sortu barik. Olarte, Sierra de Zigarrola edo Bergarako Labe Garaiekin era horretan jokatu dute.

UCEM Korporazioak enpresa hauen jabe egin zenean, 1985ean, 619 langile zueden. Gaur egun, 194 bakarrik dira. Bitartean, UCEMek azken lau urteetan 4.000 milioi pezetako irabaziak izan ditu, langileen esanetan.

Lana defenditzeko martxa

Euskal ekonomiaren krisia, eta sektore industrialena batipat, egunez egun larritzen ari dena gauza nabarmena da. Deba Garaian, larunbat honetarako egoera hori agerian uzteko eta konponbideak esijitzeko martxa bateratu bat antolatu dute sindikatuak. Beste euskal eskualde batzuetan ere egiten ari dira horrelako protesta ekintzak. Joan den astean Goierriin egin zen martxa beretsu bat.

Deba Garaiko martxa Bergararik irtengo da 10.30etan eta eguerdiko 12.30etan iritsiko da Arrasatera. Antolatzaileak ELA, LAB, CCOO eta ESK sindikatuak dira. UGT sindikatuak ez du deialdian parte hartu, baina Cerrajera eta Transformados-eko kasuetan besteekin batera dihardu.

Arrasaten, UCEMeko kasuaz gain, Feliciano Aranzabal (IFAM) enpresakoa da beste kasu bat. Enpresa honetan hiru hilabetez egon dira lanordu espedientearekin, ustez stock edo soberakinak gutxitzeko, eta orain enpresak egoera hori luzatu egin nahi du.

Langileek aho batez asmo horri ezetz esan zioten asanbladan, eta enpresa zuzendaritzak espediente garaian Ekialde Urrunetik hiru kamioikada produktu komertzializatzen ekarri izan dituela salatu dute.

INEMeko otsaileko estatistikaren arabera, Deba Garaian 3.037 langabetu daude, horietako 1.219 industri arloan eta 916 zerbitzuetan.

Langabetuak Deba Garaian

| | Guztira | Industria soilik | 25 urtetik beherakoak | 25 urtetik gorakoak |
|----------------|---------|------------------|-----------------------|---------------------|
| 92ko azaroa | 2.944 | 1.132 | 1.127 | 1.817 |
| 93ko urtarrila | 3.028 | 1.227 | 1.135 | 1.893 |
| 93ko otsaila | 3.037 | 1.219 | 1.136 | 1.901 |

San Juan txirrindulari saria indartzea helburu

Arrasate Txirrindulari Elkarteak (ATE) direktiba aldatu du aurten eta gogoz ekin dio denboraldi berria antolatzeari. Beren helburu nagusia urtero egiten den afizionatuentzako San Jaun froga indartzea da, eta hemendik lau bat urtera nazioarteko froga klasiko bihurtzea, ahal bada. "Orain konpetentzia handia egoten da", komentatu digu Joseba Etxagibelen ATEko lehendakariak, "frogak egoten dira Segura, Hernani, Tolosa eta Haron, horregatik gure asmo nagusi eta zailena San Juan frogakoa da, ikusi egin behar gero ea nola irteten duen". Orain arte bigarren mailako froga izan da Arrasateko hau, eta garrantzi pixkat emateko eta jende gehiago erakartzeko sariak handituko ditu antolakuntzak, iaz 30.000 PTatik aurtengo 100.000 PTara.

Froga hau indartu eta beste ekimen batzuetarako, sozioak biltzeko kanpaina hasi du Txirrindulari Elkar-teak. Orain arte, bazkide barik funtzionatzen zuen taldeak, baina aurten, oinarri sendoagoak izateko kanpaina hasi dute: 1.000 PTA da urteko kuota eta dagoeneko 350 sozio inguru badira. Txartelak Monte eta



Joan den astean korritu zen kadeteentzako Musakola Saria.

Noski tabernetan daude, eta oraindik irekita dago bazkide-tetze-epea.

San Juan sariaz gain, hasi da dagoeneko ATEren aurtengo lasterketa programa. Joan den larunbatean jokatu zen Musakola saria, 2. urteko kadeteentzat: irabazlea Larrañaga zarauztarra izan zen eta lehen arrasatearra JMA taldeko Iraultza Arregi. Maiatzaren 15ean, 1. urteko kadeteen lasterketa izango da; 29an, maila bereko Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa, eta azkenik, ekainaren 25ean ai-

patutako San Juan saria.

Euskal Herriko itzulia

Bestetik, datorren urtean izango dute lanik ATEkoek, Euskal Herriko txirrindulari itzulia Arrasatetik irtengo du eta. Lehen etapa Arrasate-Arrasate izango da, eta bigarrenak ere herritik irtengo du Balmasedarako bidetan. Txirrindulari Elkartetik komentatu digutenez, herri inguruko errepideak ez daude behar bezain ondo, baina hori ez dago euren esku, Udalak edo esan behar du.

Arrasate-Oñati Laixan-en eskutik

Arrasate-Oñati lasterketa, ohizko bihurtu dena Oñatiko Laixan euskara elkarteak antolatuko du aurten, Arrasate Euskaldun Dezagun taldearen laguntzaz. Orain arte lagun koadrila bat zen 1983.ean sortutako froga honen antolatzaila, baina 11. edizio hau Laixanen esku geratuko da. Laguntzaileen artean, AEDz gain, Oñatiko Udala eta Aloña Mendi kirol elkarteak atletismo taldea izango dira. Aurtengo lasterketa maiatzaren 16an (igandez) izango da, betiko ibilbideaz: Arrasateko Portaloitik Oñatira, 11 kilometro eta 300 metro. Izen ematea 500 PTA izango da. Partehartzaile onenen helburua, Diego Garciak 88an jarritako marka hobetzea (33 minutu, 31 segundu); gainerakoena, amaitzea eta ondo pasatzea.

Atletismo Taldearen batzarra

Arrasate Atletiko Taldeak gaur burutuko du bere urteroko batzar orokorra. Monterrongo kultur aretoan izango da junta, arratsaldeko 7etan. Iazko kontuen balantzea egingo da, urteko memoria irakurri eta onartuko da eta 93rako gastu aurrekontuak aztertuko dira. Bukatzeko, ohi bezala, eskari eta galderak. Bazkide guztiak gonbidatuta daude.

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novcento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

PENALTIAK

● Arrasate Saski Baloi taldeak antolatutako zozketaren zenbaki saridunak ez dauka jaberik oraingoz. 7.295 zenbakidun txartelari 100.000 pezetako saria tokatu zitzaion Aste Santu aurretik egin dako zozketan. Zeu bazi-na edo, deitu 79 91 80 telefonora.

● Dorletako Ama txirridulari taldeko jubenilek froga bikoitza izan zuten joan den asteburuan Zarauzko IV. Udaberri sarian. Lehen lasterketan, 79 kilometro larunbatean, Dorletako Alberto Roldan zoriondu beharra dago, 2. izan baitzen. Hurrengo egunean erlojupekoa izan zuten (13 km). Froga honetan Joseba Garitano izan zen Dorletakoen onena (5.), eta ondoren Alberto Roldan (19.).



Asteburuan Gipuzkoako atletismo Txapelketa jokatu da taldeka

Asteburu honetan, hilak 24 eta 25, Gipuzkoako taldekako txapelketa absolutua jokatu da. Donostiako zita honetan 8 talde bilduko dira: Real Sociedad, Atletico SS, Bidasoa, Tolosa, Jakintza, Ordizia, Renteria A.T. eta Arrasate-Astоре, hain zuzen ere. Mondrauetik guztira 20 atleta joango dira, eta helburu nagusi bezala, gutxienez iaz lortutako 3. postuari eustea egongo litzateke. Lana ez da erraza izango, gure atletek ganoraz entrenatzeko aurkitzen dituzten oztopok kontutan hartuta. Animorik ez dadila falta, ordea!

Nork irabaziko du, Eugik ala Belokik?

Biek ere ederto ezagutzen dute elkar, lagunak dira, eta beraz edozer gerta daiteke. Nik Belokiren alde emango nuke, baina...

Dena dala, gazte hauekin azkenean pilotak irabazten du.



JUAN OSINAGA
Pilota taldeko lehendakaria

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 1 - Sodupe 1
Preferentea Araba: San Andres 2 - Michelin 1
Emakumeak: Bortzirak 1 - Mondra 2
Jubenilak, ohorezkoa: Elgoibar 1 - Mondra 0
Jubenilak, 1. maila: San Andres 1 - Vitoria 1
Jubenilak, 2. maila: Urnieta 5 - Arrasate 3
Kadeteak: Mutriku 3 - Arrasate 2
Hurrengo partiduak
Amorebieta-Mondra. Zornotzan. Igandean. 5etan.

Saskibaloia

Senior gizonetakoak: Arrasate 88 - La Salle 86
Senior emakumezkoak: Donostia 61 - Arrasate 65
Jubenilak gizonetakoak: Arrasate-A 120 - Arrasate-B 2
Kadeteak neska A: Zahor 15 - Arrasate 65
Kadeteak mutilak A: Hautzaro 39 - Arrasate-A 78
Kadeteak neska B: Eskoriatza 34 - Arrasate 39
Kadeteak mutilak B: Arrasate 53 - Eskolapios 51
Kadeteak mutilak C: Arrasate 61 - Zahor 57

Hurrengo partiduak

Senior gizonetakoak: Patronato - Arrasate; Bilbon, larunbata, 5.30.
Senior emakumezkoak: Arrasate - Gernika; Musakola, larunbata, 6.00.
Sub-23 gizonetakoak: Iraurgi - Arrasate; Azpeitia, larunbata, 11.00.
Jubenilak gizonetakoak: Arrasate-A - BKL; Musakola, larunbatean, 4.00.
Kadeteak neska A: Arrasate - Eskoriatza; San Viator, igandea, 12.00.
Kadeteak mutilak A: Iraurgi - Arrasate; Azpeitia, larunbata, 11.00.
Kadeteak neska B: Arrasate - Almen; San Viator, larunbata, 4.00.
Kadeteak mutilak B: Arrasate - Zarautz; Musakola, larunbata, 12.00.
Kadeteak mutilak C: Larramendi - Arrasate; Donostia, larunbata, 11.00.

Eskubaloia

Seniorrak: Pulpo 26 - Arrasate 24
Junior: Eibar 24 - Arrasate 16
Jubenilak: Arrasate 9 - Elgoibar 18
Kadeteak: Arrasate 21 - CAF 18
Hurrengo partiduak
Seniorrak: Arrasate - Aloña Mendi; Iturripen.
Juniorrak: Arrasate - Jauja; Iturripen, ostirala, 8.30.
Jubenilak: Jauja - Arrasate; Deba, larunbata, 5.00.
Kadeteak: Zarautz - Arrasate; Zarautz, larunbata.

Pilota

Nagusiak: Arrasate 22 - Aloña Mendi 13
Jubenilak: Arrasate 22 - Aloña Mendi 18
Infantilak: Arrasate 10 - Aloña Mendi 18
Hurrengo partiduak
• Herri arteko txapelketa, Eibarko Astelena frontoian, ostiralean, 8etan.
• Deba Harroa txapelketan, atsedena.



• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA

Zarraoa

ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Botikez jakin behar dena


Botika izena eritasunak prebenitu edo sendatzeko erabiltzen den substantzia guztiei ezartzen zaien arren, me-rezi du botika eta sendagai hitzen artean bereizketa bat egiteak.

Sendagaia, gizakien eta abereen gaixotasunak sendatzeko edo prebenitzeko ahalmenak dituen substantzia edo konposizioa da. Azido azetil-saliziliko, esate baterako.

Botika, ordea, aurrez presaturiko edozein sendagai da. ezaugarri berezi batzuekin aurkeztua, eta izen edo marka jakin batez ezagutzen dena. Adibidez, Aspirina, Adiro, Couldina, etab. (guzti horiek azido azetil-saliziliko sendagaiz osaturiko botikak dira).

Normalean, industria farmazeutikoak botikak egiten ditu. Hau da, sendagaiaren lehengaiak erosten ditu, itxura berezi bat ematen die (pilulak, injekzioak, supositorioak, etab.) eta berak ezarritako izen batekin saltzen ditu. Prozesu guzti hau merkatu librearen esparruan sartzen da, botikak kontsumo-gai baten ezaugarriak hartzera iristeraino. Zentzu honetan, aipatzekoa da, ezen orain urte gutxi egindako ikerketa batek frogatu zuenez, pilula kolore bizi eta erakar-garri aurkezten denean, pilula horrek "gehiago sendatzen duela".

Bada, gainera, oso kontu-



tan hartu beharreko beste alderdi bat: oso antzekoak diren botiken gehiegizko ugalketa. Adibide bezala, badira 200 izen komertzial baino gehiago amoxizilinentzat. Osasunaren Munduko Erakundeak berrehun sendagai baka-rik dauzka nahitaezko bezala eritasunak prebenitu eta sendatzeko, eta merkatuan bi mila botika baino gehiago daude. Nahitaezkoen eta aukeran erosi daitezkeen artean, beraz, ikaragarriko desproporzioa dago.

Automedikaziorik ez

Askotan aipatzen da, etxe-ko botikinean sobratzen diren botikak gordetzea arriskutsua dela: ez genukeela bakoitzak daukagun eritasunaren diagnostikoa egin behar, garai batean mesedegarri izan zena agian orain kalterako izan daitekeela, gaizki kontserbatua

egon daitekeela, edo balioa galduta, edota elkarrekin nahasiz berez kalterik egiten ez duten botikek ondorio txarrak eduki ditzaketeela...

Izan dezakegun beste arazo bat zera da, ontzikietan agertzen diren zeinuak irakurtzen ez dakigula. Hona hemen, zeinu hauek zer esan nahi duten:

○ "Botika hau lortzeko beharrezkoa da medikuaren errezeta".

⊕ "Nerbio-sistema ukitzen duen substantzia (psikofarmakoa)". Errezeta beharrezkoa da, eta baita nola hartu behar den errezetan bertan jartzea.

● "Estufeazienteen kontrolpean dagoen substantzia". Errezeta berezia behar da berau lortzeko.

✘ "Iraungitze-data berezia duen botika". Data hau espre-ki aipatzen da ontzikian (adib. Urri. 94).

* "Hozkailuan gorde behar den botika".

• Zeinu hau daramaten ontzikiek prezio berezia dute Gizarte-Segurantzaren onuradunentzat. (Ordaindu daitezkeen topea 50 pezeta da).

Garrantzi handiko beste kontzeptu bat IRAUNGIPEN-arena da. Iraungitze-data berezirik ez duten botikek bost urte iraun dezaketela pentsatzen da, sendagaia gordetze-ko modu ezberdinen arabera. Bestalde, ontzikiaren etiketan letra batzuk ikus daitezke, fabrikazio-urtearen loteari dagokionak. Lehen esan bezala, botikek bost urte irauten dutela kontutan harturik, dagoeneko ez dira kontsumo-rako egokiak 88an edo lehenago egindako botikak. Fabrikazio-urtearen eta lotearien arteko korrespondentzia honako hau da:

A-1987 B-1988 C-1989 D-1990

E-1991 G-1992 H-1993 I-1994 etab.

Aurreko guztiagatik, 1988 urtea baino lehen fabrikatua izan den botika iraugita dago, eta gure osasunerako ez genuke kontsumitu behar. Horrela bada, erosi baino lehen eta batez ere, kontsumitu baino lehen, ez da batere kostatzen zeinu horieri begiradaxo bat botatzea.

KARMELO ETXEBARRIA

PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE


HITZALDIA

Dietak eta minbizia

Nerea Larrañaga (Sendagilea)


29an, OSTEguna
Arratsaldeko 3.30etan
AEDko lokalean

EKIN emakume taldea



Adi gazte!

18 urte eginda badituzu eta AEDk uztailean antolatzen dituen **Udalekuetan begirale**



izatea nahi baduzu, dei egin apirilaren 30a baino lehen **79 54 46** tfnora. Zure zain gaude!

Interesatuok 2 argazki eta N.A.en fotokopia ekarri!


Erreketari buruzko koplak

Mondragoeko erreketari buruz azalpen batzuk eman ditugunez, gertaera historiko haren inguruan jasorik dauden koplak batzuk argitaratuko ditugu gaurkoan:

Gomiz handia çan arren
anzan Presebel bere
bay Juanikote bere
Madalena-an ey dantza
viola tronpeta bague.

Gomizek asko lagunik
zabal arabarrik
guiputz sendo ederrik
bizkaltar urduri gogorrik...
Ez diazo bakarrik
ze an datza Prexibel illik
Juanikotegaz'lagundurik
txirulen ospe baguerik
ez urrun Maalaguenik.

Argui izarrak uzten dau
zeruan goian ostantzean...
bergarrok asi dira
traizio baten asmatan;
euren artean dioe:
"Erre dezagun Mondragoe
lasterrean joan gaitezana".
Kantoeko zartziketara
aen bizarrak ikara zirean.
Armakas ezin egien legez ezer,
ganboarrok hasi dira su emaitan;
ta onegaz urten daude berelan
oñeztar barruangoak,
zein erre ez zitesan.
Gomiz Gonzalu bertan zan,
beragaz Presebel bere aldean,
Juanikote ta beste askok
eudela parte berean.



Oiñ'orrazian luma
Ozaetako jaun gazteak...
laster baten iago zan
urak alde bestera.

Uraz ara igaro zan
Ganboar seme lasterra;
ara bere lasterrago
Abendañuyo motela.

Eskerrikasko ematen deutzat
Andra Santa Mañari...
berak Axei'tzan sartu'ta
etxera bidaldu nau ni.

Ama bereak esautzan:
"Seme! zer dok orrelan?"
"Zaurietan kuratu eta
ama! nagizu oera".

SUTONDOAN

**ANJEL ABELETXE ETA
BITTORIANATXO
SORGINA (VII)
(Gertatua)**

Bata betiko bide-
tik, bizkor, sor-
gina baino lehe-
nago helduko zelakoan eta
bestea berriz bere sorgin-bide
txarretatik baina laburrago-
tatik, orain ere sorgina lehe-
nago eta aterkipean bat ere
busti gabe. Anjel etxeratu ze-
nerako, atariko arkupean gaz-
tainak egosteko abar bila ze-
bilen. Harrera oso ezitsua
egin zion, nondik zebilen gal-
detuaz, eta mutila ez zion ge-
zurrik esan, bildotsak txabo-
laratu ondoren euriak harra-
patu zuela eta abar, gertatuari
garrantzi txikienik ere emate-
ke eta txabolan zer ikusi zue-
nik ere aitatzeko. Katarro txar
bat edo pulmonia bat hartu
baino lehen aldatu eta berotu
zedila, guztizko begirada
maitatsu batekin esan zion.

Anjel eta Loretxo ezkon-
du ziren, eta bai neskatila-
mutiko sail ederra ekarri ere,
baina beren aitak inoiz ere ez
die sorgin konturik aitatzen,
nahiz eta berak direnik ez si-
nistu, sortu ez daitezen, bada
ezbada ere.

(Amaitu da)

ARREGITAR TIBURTZIO

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

Erdiko kale. 79 19 37



ferrerias. 79 87 62

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

**IBARRA
Garajea S.L.**



**EBRO
NISSAN**

**Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua**



G

arai baten ere, ohizkoak ziren, orain bezala, kuadrilen arteko afari eta bazkariak. Lagun talde honek sarri sarri egiten zituen Zentro Kato-

likoan afariak, eta gero urtero, Santa Ageda egunez, bazkari eder bat Etxazuri jate-txean. Egun horretako bazkaria pagatzeko, astero astero dirua botatzen zuten. Erretiratuak, hala ere, Zentroan egindako afaria izan behar du. Mahaiaren inguruan batu zirenak, ezkerretik hasita, **Pedro Ugarte, Pedro Otadui "Labeko", Jose Ramon Uribarren "Ante", David Arzamendi** (hau ez zen kuadrilakoa, baina Zentroan egon ohi zenez, eurekin batera zegoen egun horretan), **Angel Garitano, Eugenio Sagasta "Olatxo"** eta **Jabier Urrutia**

dira, 1958-60 inguruan edo. Afari honetan ez ziren egon nonbait, taldean ohizko ziren lagun batzuk: **Jose Mari Altuna, Angel Zubia "Zestero"** edo **"Bitxiski", Luis Lasagabaster "Kuku",** eta **Uribarren anaiak, Daniel eta Juan Jose.**

Zentroaren arduradun parrakoa izaten zen, eta funtzionamendurako junta bat egoten zen. Talde horrek familia baten eskua utzia izaten zuen hango sukaldari eta zaindaria. Urte askoan Balanzategitarrak izan ziren lan horretan, **Felisa, Maritxu, Faustino** eta **Axun.**

Jatorduetarako ezezik,

goiz eta arratsaldetan ere izaten zen jendea Zentroan. Meza ostean ardua gailatekin ateratzen zen, eta arratsaldetan berriz intxaurrekin. Emakumeak ere joaten ziren umekin eta, kafea hartzera, baina emakumerik ez zen bazkide izaten. Oso sukalde oneko jatetxearen fama dauka oraindik ere Zentro Katolikoak, eta prezioaren aldetik, oso arreglatu egiten zuten. Ardua ere oso ona izaten zen, Alondigatik sahagietan ekarrita, alondiga hori 1962ko azken egunean itxi zen arte. Zentroa bera, 1977ko apirilaren 24ean itxi zen, domekaz.



Mondeo

M MUGARRI

Mondeo



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Donostian gela bat edo pisua behar da.** Tfnoa: 79 47 09.
- **Bi oheko gela eskaintzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua edo logela behar da Arrasaten.** Premia dut. Tfnoa: 88 90 59.
- **Donostian hiru hilebetetarako pisu konpartitu bat behar dut.** Tfnoa: 71 41 21.
- **Pisua alokatzen da Arrasaten.** Navas de Tolosa kalean. Guztiz jantzita dago. Dei egin 8etatik aurrera 79 70 58 tfnora.

Lana

- **Leintz Akademian alemanezko, ingelesezko eta italiarnezko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 81 30 eta 79 51 09.
- **Esperientziadun neska etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: (945) 44 53 31. Aramaio.
- **Ingelesezko klase partikularrak ematen dira.** Mailak: ertaina eta altua. Tfnoa: 79 20 64.
- **Andra bat prest atarte, bulego eta lokal komertzialak garbiketako.** Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- **REM eta OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 48 09. Itziar.

• **Esperientziadun emakumea umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.

• **Neska euskalduna eta gaztea behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 77 12 08.

• **OHoko zein ingelesezko klase partikularrak ematen dira (maila guztiak).** Tfnoa: 79 45 60. Sonia.

• **Ordenadoreetan lanak egiten dira.** 150 PTA orriko. Tfnoa: 79 13 26. Maite

Salerosketak

• **Opel Corsa GT 1.300, SS-Z zuria salgai.** Tfnoa: 79 42 78.

• **Nintendo kontsola, eurokonektorea behar duena, salgai 6.000 PTAan.** Hainbat joku 3.000-5.000 PTA artean. Tfnoa: 71 40 19. Igor.

• **Seat Panda, SS-0408-S, egoera onean salgai.** Dei egin denda orduetan 79 86 75 tfnora.

• **Bigarren eskuko mobil-home bat erosiko nuke.** Tnoa: 77 04 98.

• **Seat 127, BI-K salgai 40.000.** Dei egin goizez (945) 27 63 39 tfnora.

• **Bost tokiko Adria markako karabana salgai.** Bi urte ditu. Berogailu eta guzti. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 84 55.

• **Nikon argazki makinarentzako duplikatzaile makroa salgai.** Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 77 12 28. Jabierto.

Denetarik

• **Hies-Ekimenak sexualitateari buruzko argazkiak ateratzeko modeloak behar ditu.** Emakumezkoak nahiz gizonezkoak. Ez zaitetz beldurtu eta etorri gugana. Jende askoren laguntza behar dugu! Tfnoa: 79 26 99.

• **Asteburuetan, kotxez, Madril-Arrasate eta Arrasate-Madril bidaia egiten dutenekin kontaktatu nahi dut.** Dei egin 79 53 12 tfnora. Asier.

• **Egunero goizeko 8etarako Donostiara heltzeko kotxea behar dut.** Gastuak erdibana. Tfnoa: 71 41 21.

• **Egunero Gasteiztik Arrasatera joan-etorria egiteko kotxean tokia behar dut.** Tfnoa: 79 85 71.

• **Leioara egunero joaten naiz kotxez.** Zuk ere bidaia bera egiten baduzu, elkarrekin joan gaitetzke; kotxea baduzu hobeto. Dei egin asteburu eguerdian 79 50 20. Imanol.

• **Erretratuak zein edonolako irudiak egiten dira oleoz.** Monterroi aurreko Uxarte gozodendan dago hainbat kuadro ikusgai. Informazio gehiagorako dei egin 79 83 76 tfnora. Pako.

• **Musika taldeak behar ditugu lokala denon artean alokatzeko.** Tfnoa: 79 13 26.

Aste Gazte

Udalekuak

• Zarautz, Getaria, Hondarribia, Orrio, Espejo, Zua, Barria, Plentzia, Orduña, eta abarren 7-13 urte bitartekoentzat. Uztaila eta abuztuan, 15 egun. Kuota: 15.750 PTA. Izen emateak: 1) apirilaren 26tik 29ra bitartean telefonoz deitu behar da (43 00 30) hitzordua hartzeko; 2) Inskripzioak 29tik aurrera egin ahal izango dira (bakoi-tzak alde aurreko hitzorduan emandako egun eta orduan).

Auzolandegiak

• Atzerrirako plazak apirilaren 26tik (datorren astelehena) aurrera hasiko dira banatzen. Estatu espainolekoak maiatzaren 3tik aurrera eta Euskal Autonomi Elkar-tekoak maiatzaren 10etik aurrera.

Ikastaroak

• Argazkigintza ikastaroa, hastapen maila. Maiatzaren 3tik ekainaren 3ra, astelehen eta asteazkenetan. 7etatik 9etara. Matrikula:

1.000 PTA. Plaza mugatuak.

• "Saltsa" ikastaroa, maiatzaren 3tik 29ra, Musakolako Kiroldegian, 14 urtetik gorakoei zuzendua. Ordu-tegi ezberdinak, plaza mugatuak.

Sexualitate tailerrak

• Gazte taldeetako monitorei zuzendutako tailerrak: a) asteburu batetan, ekainak 4-5-6 intensiboa, Azatlan b) asteazkenetan, 6etatik 9etara, maiatzaren 26tik aurrera. Izenemateak gazte Bulegoan eta HIES Ekimenaren lokalean.

"Desobediencia hitza gustatu zitzaion, ezaguna suertatzen zitzaio-lako; haurtzaro osoan eta nerabe-zaroaren gehiengan amari entzunda zegoen, ez zela esanekoa, esaneko izateko, bestela zigortua izango zela, ... eta antzeko gauzak"

A. MORAVIA
"LA DISUBBIDENZA"



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65


BERTSOAK

ISTRIPUAK

Maspilduta itzuli naiz oporretatik kotxean beldur gutxi eukitzeagatik beste batzuen penaz nago horregatik zoriak ez du irri egin haiengatik. Bizitza galtzen dugu bost minutugatik.

"Herio" etengabe ari da lanean bolantea eskutan hartzen dugunean inork ez baitu uste kotxe barrenan frenatzea alperrik dela azkenean ziztu-hotza hil-kanpai bihurtzen denean.

AITOR SARASUA



ZER NAHIAGO?

Patxi Barrutia

Ugaran jatetxekoa

- **Gustokoa duzun menua?** Paitiaren gibela, rape eta gaztai freskoa eta arandanoekin eginiko tarta.
- **Serbitzeko zenbat jende?** Segun zein egunetan eta segun zenbat jende etortzen den bazkalzen.
- **Ze aldizkari erosten duzu?** Aldizkari tekniko asko erosten dut, Tiempo aldizkaria ere bai eta, egunero hiru edo lau egunkari.
- **Telazko ala paperezko serbilletak?** Beti telazkoak.
- **Arrainarentzat saltsa bat?** Arrainak ez du saltsa handirik behar.
- **Zer gomendatuko zenuke?** Irakurtzea, horixe da eta gehienok ahaztuta dugun ohitura.
- **Mendira joateko ohiturarik?** Oso gutxi, oporretan batez ere.
- **Seguruko medikua ala pribatua?** Guk dugun ordutegiak askotan pribatuengana joatera behartzen gaitu.
- **Ze motatako jendea etortzen da bazkalitzen?** Enpresa gizonak, familiak edo lagunak batez ere.
- **Eta kafea hartzera?** Oso gutxi, jatorduetan bakarrik egoten da zabalik eta.
- **Zein egunetan dago itxita?** Jai egunetan.
- **Zenbat sukaldari?** Sukaldari bat eta beste laguntzaile bat.
- **Jaun hartzerik ospatzen da hemen?** Bai, aurren ere badituz enkargu batzuk baina inoiz baino gutxiago.
- **Zer gertatuko da hurrengo hauteskundeetan?** Zoritxarrez gauzak ez dira gehiegi aldatuko, ez dago alternatiba gehiegi ere.
- **Garagartza herri ona da bizi izateko?** Dagoen herririk onena izan daiteke bizi izateko eta lasai egoteko behintzat.



URONDO
elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**
- * **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Jose Antonio Villar

Euskal komunikabideak aztertzen

“Adorez eta atseginez” mintegiko partaide dugu Jose Antonio eta beste hainbat alditan bezala, Arrasateko komunikabideen esperientzia azalduko du ekainean eta Pariseko Sorbonan “Trilogia analitika” izeneko taldeak antolatzen duen kongresuan.

— Konkretuki, zeri buruzko kongresuan hartuko duzu parte?

— Hizkuntza minorizatuek komunikabideekin duten zerikusia aztertzea da kongresu honen helburua. Horregatik, Jose Mari Sanchez Carrión “Txepetx” alde batetik, eta bestetik ni gonbidatu gintuzten. Beraz, Txepetxek ekainaren 23an hitzaldi bat emango du eta nik ekainaren 24an mahainguru batean hartuko dut parte. Eta Kongresu guztietan egiten den bezala, azken egunetan emaitzak azalduko dira eta egun horietan esango diren gauzen azterketa eta onarpena egingo da.

— Zein da Kongresuan azalduko duzun gaia?

—, Gure kezka kulturak eta esperientziak hemendik kanpo zabaltzea oso interesgarria iruditu zitzaidan hasiera hasieratik, eta horregatik onartu nuen parte hartzea ere. Beti izan



dut komunikabideen azterketan interes berezia, gure hizkuntzarekin lotura dutenean batez ere. Beharbada, ez da erraza kongresu horretan gai honetaz hitz egitea, horregatik, nik azaldu nahi dudana ezagutzeko txosten bat ari naiz lantzen. Esan behar da, bestalde, parte hartuko dudana mahainguru horretan munduko herrialde desberdinetako jendea izango dela: brasildarrak, italiarrak,

portugaldarra, EE BBkoak... baina oinarritzko gauzetan, kultura definizioetan ados gaudela uste dut. Bestalde, mahainguru horretan egongo garenez gairi, entzuten egongo diren beste hainbat jende bilduko da eta horiek azalduko dituzte beharbada kezka gehienak.

— Txosten horretan zer da azpimarragarri?

— Txostena hartzen duenak nondik abiatzen naizen jakin dezan, lehenda-bizi definizio batzuk jarri ditut, defendatzen dudana ezagutzeko. Argi utzi behar da nik kultura hartu dudala abiapuntu bezala, eta kulturaren barruan euskara. Baliteke, Kongresu horretan kultura galtzearen kontzientzia ez dutenak biltzea, eta maila horretan nire lana kontzientziatzea izango da. Definizioak egin ondoren, euskararen egoeraren kezka azaltzen ditut eta kezka horien nondik norakoa komunikabideen barruan. Baina, definizio eta gauza guzti horiek abstraktuak direnez, kasu konkretuak zehaztu behar dira, konkretuki Arrasateko kasua azpimarratu nahi nuke, AEDtik hasi eta ARKOra heldu arte. Inportanteena beharbada eurak kontzientziatzea litzateke.

.....

Komunikabideetan euskarak eta beste hizkuntza minorizatuek duten presentzia aztertuko da Kongresuan

Labeko Koban ikerketa gehiago

Labeko Koba-ko aztarnategi prehistorikoa aztertzeke beka bat eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Aranzadi zientzia elkarteari. Leizezuloan 1987 eta 88an hasitako azterketak jarraituko dituzte.

1972an egin ziren lehen azterketak Labeko Koban, baina eskabazio serioak duela bost urte egin ziren. Haien argitara ikusi zenez, duela 30.000 urte, paleolitikoa, giza-semea bizi izan zen Arrasateko koba horretan, su-harri aztarnak agerian jarri zuten. Orduko eskabazioetan lortutako materiala ikertzen aritu dira Aranzadikoak geroztik.

Orain, Diputazioko Barandiaran bekari esker, 12 pertsonako lantaldea arituko da, bi urteko programa batekin. Ikerketa buruak, Jesus Altuna, Alvaro Arrizabalaga eta Mari Jose Iriarte izango dira. Altunak Paleontologia saila eramango du, Arrizabalagak ikerketa litikoak, harri buruzkoak, eta Iriartek palinologia arduraduna izango da, polen aztarnak ikertuko dituena. Animalien hezurak aztertzeke, Suediako unibertsitate baten laguntza izango dute, Carbono 14az datatzeko.

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

.....

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

.....

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

ASTRONOMIA

IZARREN HAUTSA (I)

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai...

Honela dio kantu famatu batek, eta astronomoek diotenez egia boro-bila da.

Historian zehar, testimonio asko iritsi zaigu "supernoben" leherketei buruz. Supernoba izar berezi hauek, lehertzen direnean dizdira izugarria sortarazten dute ortzean eta nahiz eta oso urrun egun, begi hutsez ikus daitezke, hau da, teleskopiorik erabili gabe. Oso eza-gunak izan dira supernoben leherketa batzuk. 1.054.go ekainean 4ean, beraiek deituriko "izar gonbidatu" baten presentzia aurkitu zuten astronomo txinatarrek Tauro konstelazioaren aldean, hau da, Mexiko Berrian, Anasazi leinuko batek harri batean tailatu zuen izar berri honen jaiotza. Bere dizdirak hiru hilabete iraun zuen eta argitasuna ilargiarena ilbetean baino handiagoa izan zen. (Ez tamainua, noski).

(Jarraituko du)

ERNEST BORN

Zeramika Eskola, eskuak buztinean

Leintz Zeramika Eskola duela dozena bat urte hasitako bide finkotik dirau. Aste honetan itxi dute Monterronen urtero egiten duten erakusketa, eta hemendik udara bitartean beren egoitza, tren geltoki zaharra, berritzeari ekingo diote, bereziki labea konpondu eta hobetzeari.

Elkarte gisan funtzionatzen du Zeramika Eskolak honek 35 bazkide dira orain, eta bakoitzak bere lanak egiteko aukera dauka beren lokaletan. "Ikastaroak daudenean ni izan naiz irakasle", komentatu digu Imanol Aranburuk, "baina funtzionamendu normalean, bazkideek elkarri laguntzen diote". Aranburuk *zuzendaritza* lanak utzi egingo ditu laster, eta talde batek hartuko du Eskolaren gidaritza.

Eskolan denetariko lanak egiten dituzte, dekoratzekoak batzuk, baina etxean erabiltzeko moduko piezak ere bai. Lagunen bitartez eta, saltzen dituzte, baina produktuak ez dira dendetara ailegatzeko. Hala ere, zerbait nahi duenak lokaletik pasa besterik ez dauka, merke aurkituko baitu etxerako hainbat gauza. Dena den, Eskolako inor ez da bizi langintza honetatik. "Artisautzak izan dezake etorkizunik, baina zaila da bizitzea, ez da jakitea bakarrik, materiala eta




Labe hau eurek egina da eta orain berri egin behar dute.

labea behar dira", esplikatu digu Aranburuk. Dena den, gogoz dihardute Eskolakoek; dagoeneko jende pilo pasatu da bertatik ikastaroetan eta, gazte zein nagusi, Arrasatekoak eta ingurukoak ere bai. Hurrengo ikastaroa uda ostean izango da.

Gutxi barru, labea berritzeari ekingo diote. Orain daukatena eurek egina da, baina gerorako, bero handigoaz funtziona dezakeen bat

nahi dute, orain arte darabilten buztin gorriaz gain, portzelana, gresa eta beste zeramika gogoragoak erabiltzeko. Buztin gorria Kataluniatik ekartzen diete Arrasatera, Gironako harrobi batetik. "Ez, ez, ez digute Atxartetik ekartzen", diosku Aranburuk, "buztin gorria ugaria da alde guztietan, ez da esplotatzen lurra buztina erabiltzeagatik". Beraz, ekologikoki ere, zuzena da zeramika langintza.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71




OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

• ESAERA ZAHARRA •

*Apirila on ikusi
nabi duenak,
ebun urtez
behar du bizi.*

• JEROGLIFIKOA •



Larramendi sorteria.

• GURUTZEGRAMA •

| | | | | | | | |
|----|---|----|----|----|---|----|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | |
| 11 | | | | | | | 12 |
| 13 | | | 14 | | | 15 | |
| 16 | | 17 | | 18 | | | |
| 19 | | | | | | | 20 |

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Atxakia. 9. Tutuak. 10. Arrasateko Elkarte gastronomikoa. 11. Antzokia. 13. Kanpo. 14. Lehena bi aldiz. 15. Aluminioa. 16. Hitz grekoa. 18. Klera. 19. Ura ugari du. 20. Amnesty International.

Bertikalak 1. Itzali. 2. Hiritar. 3. Andeetako inperio zaharra. 4. Kuartzoaren barie-tate bat. 5. Janariak, edariak denboraz galdu. 6. Funditu. 7. Bi pare. 8. Nor pluralean. 12. Alegera. 15. Barazki arrunta. 17. Alde hemendik.

• HOROSKOPOA •

Aries Kotxez istripu bat izateko zorian zaude. Kontuz semaforoekin!

Taurus Zure bihotzeko axukre kokorak ez zaitu bat ere maite.

Gemini Zurekin aurkitzen ez naizen egunak tristeak dira.

Cancer Donostiako lantegi batek izugarrizko lan eskeintza zuzenduko dizu.

Leo Diruz larri samar ibiliko zara datozen egunetan.

Virgo Praka beltz estuekin politagoak iruditzen zaizkit zure iztarrak.

Libra Zuk ezetz uste duzun arren, osaba Lukas ere lerdena da zure ondoan.

Scorpio Berri latz bat emango dizu telefonoz hotsegingo dizun norbaitek.

Sagitaris "Aspaldiko urteekin ikusi ez duzun lagun handi batek bisitatuko zaitu.

Capricorn Arazo bat dela medio, beharbada ospitalera joan beharko duzu.

Aquarius Bizitzan eragin handia izango duen pertsona ezagutuko duzu.

Piscis Horrenbeste jaten jarraitzen baduzu, gutxienez bost kilo hartuko dituzu.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

EDURNE BALANZATEGIREN GOMENDIOA



Zinezalea dugu Edurne, beste gauza askoren artean; eta horixe gomendatu nahi digu, zinera joatea. Bera astean behin joaten da, batzuetan Arrasaten eta Gasteizen bestela. "Denetik ikusten dut, segun eta ze umore klaserekin nagoen". Aste honetan Europa, Europa ikusi du, eta gomendagarria iruditzen zaio. Gehien gustatzen zaizkion filmeak, kontenidoa dutenak dira, "personaia baten eboluzioa, gai bat jorratzen dutenak, abentura hutsa ez direnak". Garestia den galdetuz gero, "ez da merkea, baina diru hori beste edozer gauzatan ere gastatzen dugu", dio Edurnek.

KOMIKIA



PROGRAMAZIOA



25 Igandea

9.30 Monterock
10 Mondragol

26 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
7.30 Dokumentala
8,8,30,9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea:
Goonietarrak

27 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
7.30 Dokumentala

8,8,30,9 Berriak.
9.30 Bakarka
10.00 Asteko Zinea:
Goonietarrak

28 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bakarka
7.30 Dokumentala
8,8,30,9 Berriak
9.30 Tertulixan.
10.00 Asteko Zinea:
Goonietarrak

29 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Tertulixan
7.30 Dokumentala
8,8,30,9 Berriak
9.30 ATBketan.
10.00 Asteko Zinea:
Goonietarrak

30 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
7.30 Dokumentala
8,8,30,9 Berriak
9.30 Monterock.
10.00 Asteko Zinea:
Goonietarrak

SOLUZIOAK

JEROGIFIKOA
Andoain.

U.
7. Lau. 8. Ak. 12. Alata. 15. Aza. 17.
3. Inka. 4. Agata. 5. Kerran. 6. Urtu.
Berrikalak 1. Amataru. 2. Kaletar.
Urtu. 20. Al.
14. AA. 15. Al. 16. Tau. 18. Tiza. 19.
gerak. 10. Alkartu. 11. Teartu. 13. Al.
Hortontalak 1. Atiakula. 9. Man-
GURUTZEGRAMA

mokasin

Zapatak eta
osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

LIPOESKULTURA
eta
ZELULOLIPOLISIAZelulitia, grasa eta
loditasuna behin betirako
kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA


Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

Monte
taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56



DESKUBRA EZAZU OPEL ASTRAREN BALIO BERRIA



OPEL ASTRA: SEGURTASUNAREN BALIO BERRIA.

• Segurtasun Gerrikoak alturan erregulagarriak, tentsagailu automatikodunak • Alboko Babesdun Egitura • Lapurreten Aurkako Alarma • ABSa • Segurtasuneko Ixte Zentralizatua

OPEL ASTRA: EROSOTASUNAREN BALIO BERRIA.

• Pantaila Funtzioanitzta • Check-Kontrola, Konputagailu eta Irraticasettea • Barrukalde Ergonomikoa • Ganblo Automatikoa • Direkzio Lagundua • Alrearentzat Mikrofiltroa

OPEL ASTRA: INJINARITZA ALEMANAREN BALIO BERRIA.

• Trakzio Kontrol Elektronikoa • Flush-Glass Diseinu Aerodinamikoa • Multipunto Injekzio, 16 Balbula eta Turbodiesel Motore Berriak

DESKUBRA EZAZU ORAIN ZURE OPEL BANATZAILEAN.

OPEL ASTRA, ETORKIZUNEN INJINERUTZA.

*Astra gamaren ekipamendu orokorra, bertsioen arabera.

OPEL

Z A I G A I T U Z U

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATen: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETan

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK